

"Venezuelako iraultza egunero eraikitzen dabil"



Carlos Ramirez | Venezuelako Fundacomunal-eko kidea | 8

Europakoan debuta Ruiz de Azua kirolariak

Italian lehiatuko da gaur Malen Ruiz de Azua arrasatearra | 20

Lezetxikiko aztarnategiak balio handikoa izaten segitzen du | 9



Kepa Junkera musikaria Eskoriatzan izango da gaur | 22



Batez beste, 1.300 lagun dabilta egunero Bergarako igerilekuan | 12

LANTEGI EUSKALDUN AITZINDARIA

90eko hamarkadan abiatutakoeuskalduntze plana langile guztien konpromisoarekin arrakastaz amaitu etabete du Antzuolako enpresak. | 5



Antzuolako Torresoroa eraikinean Elayko langile eta zuzendariak atzo, eguna. | JAGOBA DOMINGO



Garai bateko lixiba botila. | AGOROSABEL

Debagoieneko gatzagari etekin hobe atera nahi diote

Gaur, egubakoitza, gatzagen topaketak egiten dihardute Leintz Gatzagan eta bihar Gatzaren Eguna ospatuko dute. Bi ekimenok asmo handiago baten abiapuntu dira: gatzagaren aprobetxamendua berreskuratzea eta batera edo bestera etekin hobe ateratzea herriaren mesedetan. | 2

SINADURAK

Hezkuntza eta teknologiaz | 6
NAGORE IPIÑA

6 | Sanferminak gora-behera
GOIATZARANA

Momentu txikiak | 32
IDOIA ETXEBERRIA

ASTEKO GAIA 2 | DEBAGOIENA 4 | IRITZIA 6 |
EL KARRIZKETA 8 | HERRIAK 9 | KIROLA 20 |
KULTURA 22 | ZURE IRAGARKIAK 26 |
TELEBISTA-IRRATIA 28 | EZKONTZAKI 28 |
ESKELAK 29 | NON-ZER 30

Audi A1 Sportback

Handia detaile bakoitzean.



Udalaitz

Gipuzkoa etorbidea, 36 • ARRASATE • 943 71 18 70



943 71 48 45

Hemen
GARBIKETAK

www.hemen-garbiketak.com

Zure konfiantzako garbiketa enpresa

Mantentze garbiketak, obra amaierakoak eta garbiketa orokorrak:

- Bulego eta lokalak
- Jabeen erkidegoak, garajeak
- Lokal komertzialak, azalera handiko saltokiak, hotelak eta enpresak
- Eraikin instituzionalak, eskolak, kiroldegiak, anbulatorioak, eta abar.

Intxaurtxueta 16 Behea • ESKORIATZA • hemen@hemen-garbiketak.com

Gazia gozotasun bihurtzeko aukera bila

- ▶ Gatzagak eta haien onurak hizpide izango dira gaur Leintz Gatzagan
- ▶ Bihar, berriz, Gatzaren Eguna ospatuko dute, heldu zein umeendako
- ▶ Gatzagan duten asmo handiago baten abiapuntu dira bi ekimenok

UBANE MADERA | LEINTZ GATZAGA

Gaur eta bihar Leintz Gatzaga izango da bailaran protagonistetako bat. Arrazoaia, gaur Barnealdeko Gatzagen Lehen Topaketak egiten dihardutela 10:00ak ezkerro eta bihar Gatzaren Eguna ospatuko dutela.

Gaurko egunari dagokionez, topaketon helburua da "beste gatzagen proiektuak ezagutzera eta gatzagen erabilera turistikoaren eragina herrien garapen sozioekonomikoan aztertzea".

Hori oinarri, honako esperientziak ezagutu eta partekatuko dituzte: Añanako Gatz Harenkoa (Araba), Pozako Gatzagena (Burgos), Artetako Gatzagen berreskuratzea (Nafarroa), Oroko Gatzagak (Nafarroa) balioan jartzeko proiektua, Buradon Gatzagako (Araba) oraingo berreskuratze proiektua, gatzaren erabilera osasun turismorako eta barnealdeko gatzagen erabilera turistikoaren eragina herrien garapen sozioekonomikoan.

Horrekin batera, zela ez, Leintz Gatzagako esperientziaren berri ere emango dute gaur.


Bihar egingo duten Gatzaren Egunaren helburua, berriz, izango da gatzaren gaineko ezagupenak landu eta konpartitzea, helduendako zein umeendako prestatutako ekimenen bitartez. Egitaraua orri honen amaierako taulan duzue.

Gatz-urarekin zer?

Egunotako bi ekimenak, baina, asmo handiago baten abiapuntua besterik ez da: Leintz Gatzagako altxorra den lehengaiaren aprobetxamendua berreskuratzea eta batera edo bestera etekina a-



Iturburuetarako bidea.



Iturburuak. | LEINTZ GATZAGAKO UDALA

ratzea. Hiru aukera darabiltzate buruan.

"Gatzagako gatz museoak ez du beharko lituzkeen bisitari nahikoa, handiagoa beharko luke, bai herrirako zein museorako ondo etorriko lirakeelako. Museora ekarri ahal dira elementu berriak: museistikoak, didaktikoak (bideoak, maketak...); baina aztertu beharreko beste arlo bat da zer egin gatz-urarekin. Orain, bota egiten da. Iturritik dator, bere bidea segitzen du eta errekarra doa. Kontua da ze probetxu atera ahal zaion, ea atera ahal zaion eta, horrekin batera,

etekinik ere atera ahal zaion. Adibidez, gatz-ura saldu egin daiteke, betiere, kalitate mailaren arabera. Eta hori zelakoa den jakiteko laginak hartzen dabilta orain", azaldu du Aitziber Gorosabelek, Leintz Gatzagako gatz museo eta Turismo Bulegoko arduradunak.

Lixibaren aukera

Beste aukera bat da lixiba egiten hastea berriro: "Gatzagako nahiko mineralizazio handiko ura da. Kare asko duelako-edo, prozesu askotarako ez litzateke egokia izango, baina garai batean, adibi-

dez, lixiba egin zen. Aztertu beharko litzateke zergatik ja ezin daitekeen egin, edo egin ahal den".

... edo gatz saldu

Eta hirugarren aukera gatz berriro egiten hastea da: "Kontuan hartuta eguzki bitartez ezin dela egin, eta bestelako bero-iturriren bat bilatu behar dela gatz egiteko, eta horren kostua handia izan daitekeela, bada, aztertu egin behar da ea benetan merezi duen egitea, eta hala bada, begiratu beharko da zela egin daitekeen: suarekin, ikatzarekin, biomasa bitartez, eolikoekin...", dio Gorosabelek.

Izan ere, Leintzeko gatzagak duen partikularitateetako bat da sua erabilia egiten zela gatz. Oso-oso leku gutxitan moduan. Estatuan, adibidez, leku bakar batean dute antzeko jardueraren susmoa: Doñanan. Miguel Delibes Castro (Delibes idazle ezagunaren semea) dabil hori aztertzen orain.

Proiektua egin eta gero ikusi

Kontuak kontu, Aitziber Gorosabelek dioten moduan, "gauza horiei guztiei buelta eman nahi zaie. Proiektu bat egin, eta erabaki bat hartu: ahal da, ezin daiteke, egin egin behar da? Abiapuntua da hau. Baina era berean, zaila da. Udal txikia izanda, lan-proiektu guztiak norberak egin behar izaten ditu, denbora fisikoa bilatzea zaila da... Museoko Udaleko batzordea eramaten duenarekin hau aztertzen jarri ginenean (orain urte batzuk), pautu batzuk markatu ziren, eta bat zen honako hau: Gatzagen Lehen Topaketak egitea. Hemendik aurrera,



Goiko argazki zaharrak erakusten du zenbateraino garatu zen gatzagaren inguruan eratutako industria.

Eskuman, berriz, garai batean merkaturatutako gatz potea, gourmet motakoa eta lixiba botila. Gaur egun, Labidea dendan daude biak.

GATZAREN EGUNA (ZAPATUA)

10:00-13:00 eta

16:00-18:00 Jakion

Debagoieneko barazki eta fruta kontserbazio enpresara eta gatz museora bisita gidatuak.

13:00 Gatz dastatzea, plazan.

11:30-13:30 (Umeendako), gatzarekin egindako mandala, plazan; txokkoltza gaziaren tailerra eta txokolatetz bateriko taloak.

13:30 Brasilgo Lovisg&Ar taldearekin kalejira.

19:30 Lovisg&AR taldearen kontzertua.

DATUA	
3 UR MOTA	200 GRAMO
Hiru ur-mota ateratzen dira Leintz Gatzagan: gatz-ura, metal-ura eta uratsa. Gatz-ura mendi barruko gatzarri baten bitartez sortzen da.	Gatz-uraren litro bakoitzeko 200 gramo gatz atera daiteke; oso kontzentrazio handia da; ezagutzen den handiena 333 gramokoa da.

NISSAN QASHQAI
1.6i 117 ZP Acenta Stop&Start

15.750€ -ren truke



EKIPAMENDU MAILAKO SUPERABITAREKIN

GAURSA

Otaola ibilbidea, 22
20600 - Eibar - Gipuzkoa
Tel. 943 820 974
www.gaurcars.com

Kontsumo mistoa: 5,9 l/100 km. CO₂ igorpenak: 139 g/km.

*Penintsulan eta Balear uharteetan gomendatutako PSPa, honako hauek barne: garraioa, Nissan Assistance, sustapen-deskontua, PIVE 2 plana, PIVE 2 planerako fabrikatzailearen ekarpena Nissan Iberiak bermatuta bezero partikularren eskaera berrietarako PIVE 2 planeko baldintzak bete ez arren, BEZa eta ZGGZB Espainiako merkaturako; baliteke aplikagarria ez izatea zure komunitate autonomoan. Eskaintza hauentzat izango da baliagarria: Nissan Qashqai 1.6i 117 CV (86 kW) Stop&Start erosten duten, eroslearen izenean dagoen erabilitako ibilgailua entregatzen duten eta Espainian sukurtsala duen RCI Banque SArekin, Magic Plan bidez finantzatzen duten partikularrentzat eta autonomoentzat. 24 hilabeteko gubieneko iraupena. Ez da metagarria beste kanpaina batzuekin; izakinak agortu arte eta 2013/07/31 arte indarrean. Informazio gehiago jasotzeko, joan gertueneko zure Nissan kontzesionariara. Bistaratutako modeloa: Nissan Qashqai 360.





AITZIBER GOROSABEL

Gatz museoa, bi berbatan

Eugenio Otsoa du izena gatz museoa. "Otsoa alkate sartu zenean haren helburuetako bat zen Gatzaga aktibatze moduren bat aurkitzea, eta ikusten zen horren bilakaera turistikoa izan behar zuela. Jakion, Gaztainuzketa, gatz museoa... proiektuok ildo horren barruan kokatuta daude". Obrak egin eta 1999an zabaldu zuten museoa. Asteburuetan bisita gidatuak egiten dituzte partikularrendako eta aste barruan, berriz, eskolendako. Baina taldeka aste barruan ere joan daiteke.



Mendi barruko ura azaleratzeko errubera. | GOIENA



Gatza egiteko sua. | GOIENA



Gatz Museorako sarrera. | GOIENA

Kronologia laburra

- 947** Gatzagan gatzaga egiten zela erakusten duen dokumentazioa.
- 1331** Alfontso XI.ak Hiri Gutuna eman zion Leintz Gatzagari.
- 1372** Gatzaren aprobetxamendua Beltran de Gebarari eman zion Enrique II.ak.
- 1493** Soran kondeak Beltran de Gebararen baimenaren kontra egin eta irabazi egin zuen.
- 1834** Uholde handi batzuk gertatu, eta ondorioz gatzaga egiteko dorlak suntsitu egin ziren.
- 1843** Productos Leniz fabrika sortu zuten.
- 1920** Iraultza industrial iritsi eta argindarra egiten hasi ziren bertako ur-jauziarekin, presiopeko lapikoak erabiltzen hasi ziren gatzaga egiteko...
- 1920-1960** Produktzioa handitu zen. Txandak egin zituzten lanerako, gizon zein emakumeek.
- 1960** Iraultza Industrialak Gatzagako gatzaga ez ezinbesteko bilakatu eta gainbehera hasi zen.
- 1972** Gatzagako argindarra eten egin zuten.

te hainbat kilometrotara non dagoen gatzarria. Pozan, berriz, gatzarria daukate, baina iturbururik ez. Eta eurek eraman behar izaten dute ur gozoa gatzarri bitartetik, eta larrainetara ura bota behar izaten dute gatzaga lortzeko. Erromatarren garaiko prozesu hori itzela da. Han gatz-ura egin egin behar izaten dute. Gurean, berriz, modu naturalean irtetzen da".

Itsaso izan zenekoa, akaso

Jakinek dena da munduan dauden gatzarri gehienak orain dela 220 milioi urte sortutakoak direla, Triasiko garaian. Dena den, horretan ere berezia da Deba-goieneko gatzagako: "Orain 220-180 milioi urte artean beste prozesu bat izan zen, Triasiko eta Jurasiko artean, sakonera gutxi-ko itsasoak lurrundu zirenean. Mendiak azaleratu egin ziren gero (Euskal Herrikoak, besteak beste), eta badiote hemengo gatzarria sasoi hartakoa dela".

Gourmet gatzaga

Gatzarri horretatik eratorritako gatzarri kontserbaziorako erabilerak eman izan zaio nagusiki historian; baina kontsumorako gatzaga ere landu izan da Leintz Gatzagan, kalitate handiko gatzaga landu eta merkaturatu ere, gourmet estilokoa: "Erdi aroan eta bigarren mendean komertzializatu zenean, batez ere, izan zen jakiak kontserbatzeko: arraina, urdai-azpikoak, behi edo txahal-kiekin zezinak egiteko... kristalizazio nahiko larria zuen gatzaga behar zuen izan. Gerora, prozesu industrialaren garaian, gatzaga komeni zen bi motatakoa izatea:

fina eta larria, biak. Ze mahaie-tan egoten zen gatzaga ere lantzen baitzen gurean. Bi gatz mota zeuden: Batari *Salona* esaten zitzaion: Plastikoko paketetxoetan saltzen zena, kalitate onekoa, zuria, apur bat sendotzea, larri antzekoa, kontserbatzeko baina finagoa, hala ere".

Besteari, berriz, *Sal Leniz* esaten zioten: "Mahaikoa zen, fina, zuria eta Madrilen-eta saltzen zen. Gatz gourmet antzerakoa zen. Oso kalitate onekoa. Hau bestea baino askoz garestiagoa zen. Eta hori hala zenez, hiri handienetan bakarrik saltzen zuten", kontatu du Gorosabelek.

Gatz laranjatxo eta zozotxo

Horiez gainera, Leintz Gatzagako gatzaga duen aparteko ezaugarria da, kontraesana dirudien arren, gatz motel samarra dela. "Badauka sufre zaporetzoa; burdinaren zaporea, berriz, gazitasunak kendu egiten dio. Bestalde, metal-ura den lekuetatik zuzenean gatz-ura hartuz gero, lurrundu ahala hartzen du kolore gorri-kaixo bat eta gatzaga geratzen da kolore laranja tonutxo batekin. Probatzerakoan motela (soso) da. Hala ere, kontzentrazio handia du: 200 gramo litroko. Hau da, litro bakoitzeko 200 gramo gatz atera daiteke (kloruro sodiko hutsa barik, kloruro potasiko eta magnesiko apur bat ere badu). Konparazio bat egitearren: itsasokoak du bost aldiz gatz gutxiago. Beste bat: Elgorriagako bainu-eteak (Nafarroa) dira munduan mineralizazio kontzentrazio handien dituzten gatz-urak, eta hark litroko 333 gramo gatz dute".

imaginatzen dut gure burua ere behartu egingo dugula aurrera egiten, baina ez dugu epe-mugarrik finkatuta".

Batera edo bestera, beraz, akaso, Deba-goieneko gatzagaren jatorri den ur-emia azaleratzeko eraiki zen errubera erraldoia bueltaka ezagutuko dugu etorkizun gertuan.

Lau iturri, hiru emari

Lurpean ondo ezkutatuta dauden lau iturri dira Leintz Gatzagako ur berezien jatorri: horietako bik gatz-ura ematen dute, besteak metal-ura eta hirugarrenak, uratsa. Bada, lau iturrietako uraren nahasketatik eta sua erabilita, haren lurruntzetik eratorritakoa da Leintz Gatzagako gatzaga.

Iturrien ur ezaugarriak, berriz, euri urek zeharkatzen duten bideak markatzen ditu. "Mendi barruren baten dago gatzarri bat. Euri ura pasatzen da men-

di barrura, eta mendi barruko errekatxoetatik iturrira iristen da ur gazi bezala. Lurretik datorren ur horrek pasatzen den lekuan arabera, dauka mineralizazio bat edo beste bat. Gure kasuan, argi dago metal-ura eta sufrea pilatzen den lekuren batetik pasatzen dela euri-ur hori".

Gatzarria non dago?

Gatzagako gatzarriaren ezaugarriak dagokienez, berriz, ezezagunak dira. Ezezaguna da eta gatzarria bera, Gatz Museoko arduradunak aitortu digun moduan. "Non dagoen gatzarria? Ez dakigu. Ez da aurkitu, saiatu arren. Dena den, modu tekniko egokian bilatu ere ez da egin. Eta ez da erraza, ze haranez beteta baitago ingurua, eta, gainera, ur hau dator behetik gora, lurpetik, eta horrek zaildu egiten du aurkitze hori. Añanan, adibidez, badaukate iturburua eta badaki-

**ARRASATEKOBASERRIKO
PRODUKTUENAZOKA**

09:00-14:00 Seber Altube Plaza

HILEKO 3. ZAPATUAN

2013
uztailak 20

Irailak 21
Urriak 19
Azaroak 16

Antolatzailea:



Laguntzailea:



Arrasateko baserriek eta merkatariek konfiantza, harbitasuna eta kalitatea eskaintzen dizkizute.



'Lantegixa herri' abestia eta bideoklipa egin dute Copreciren 50. urteurrena ospatzeko

- ▶ Ate irekien jardunaldia egingo dute Coprecin bihar, zapatua; herritar guztiak gonbidatu dituzte
- ▶ Jatekoa eta edatekoa egongo da eta 'Lantegixa herri' aurkeztuko dute, ofizialki

GOIATZ ARANA/Z.V.D.M. | ARETXABALETA Coprecik, 1963an Aretxabaletan sortutako kooperatibak, 50. urteurrena ospatzeko ekitaldi ugari antolatu ditu urtean zehar, eta, oraingo zapatarako, aretxabaletar guztiakin konpartitu gura duen bat prestatu du.

Hain zuzen ere, ate irekien jardunaldia egingo dute Copreci kooperatibaren bertan. Ekitaldi horretan aurkeztuko du, hain zuzen ere, langileek sortutako *Lantegixa herri* kantu eta bideo-klipa, modu ofizialean.

'Lantegixa herri'

Copreci osatzen duten edo historian zehar osatu duten ia 20 lagunek parte hartu dute *Lantegixa herri* bideokliparen eta kantuaren grabazioan. Abestia "50. urteurrena ospatzeko eta fundatzaileen lana onartzeko" sortu dute, kooperatibatik adizteraz eman dutenez.

Mutrikuko AME Estudioetan grabatu zuten abestia eta han egin zituzten nahasketak. Bideo-klipa, berriz, Aretxabaletako hainbat tokitan eta lantokian



Copreciko langileak, bideoklipa grabatzen lantegian bertan. | ARTEMAN

bertan grabatu zuten. Hala, besteak beste, Urkulu, Durana kalea eta Gipuzkoa plaza filmatze-plata bilakatu zituzten.

Koordinazio eta zuzendaritza guztia 50. urteurreneko batzordeak hartu du bere gain eta Arteman Komunikazioaren lan-

Copreciren bideokliparen haria, langile guztien bihotza

taldearen kolaborazioa ere izan dute lana aurrera eramateko. Bestalde, musikari gehienak Copreci kooperatibako lan-bazkideak dira eta urte hasieran hasi ziren esku artean zuten proiektua garatzen, kantua egiten, bilerak eta entseguak egiten...

Eta emaitza dagoeneko ikus daiteke: *Lantegixa herri*.

Bideokliparen haria Copreciren bihotza da, "munduko milioika etxetresna elektrikotan dagoen bihotza, milioika etxebizitzatan dagoena eta, bereziki, Copreciko gizon eta emakumeen ezinbesteko organo bilakatu dena".

Ate irekien jardunaldia bihar

Aurreratu bezala, bihar, zapatua, estreinatuko dute bideoklipa era ofizialean, ate irekien jardunaldian bertan. 11:00etan hasiko dira ekitaldi nagusiak. Lehenengo, herritar guztiei zabalduko ate irekiak izango dira. Ondoren, 11:30ean, umetxoan txanda izango da, eta eurek ere bihotzen lantokia bisitatzeko aukera izango dute: "Antzerkia, ipuina... Copreciko langile batek prestatu du ekintza", azaldu dute.

Jarraian, 12:00etatik aurrera, lantoki kanpoko aparkaleku handian txosna irekiko dute, eta munduko askotariko jakiez gozatzeko aukera izango dute bertaraten direnek: Mexikoko natxoak, Turkiako kebab ederrak, Txinako ahate-gutziak, Italiako gazta parmesanoa, Brasilgo arroz-entsaladak... Edariak ere ez dira falta izango: Txekiako garagar-doa, Arabako Errioxako ardoa, sagardoa, txakolina...

Antolatzaileen nahia da herritar guztiak bertarartzea, herriko historiaren parte den tokiaz gehiago jakin eta "guztion artean lantegia herri bilakatzeko".

Euskararen berreskuratzea ardatz duen liburua kalean

Hezkuntzak hizkuntza gutxituen biziberritzean izan dezakeen eragina jaso du Garabidek

ZURIÑE V.D.M. | ARRASATE

UEUren barruan, euskararen berreskuratze proiektuaren barruko laugarren atala osatzen duen liburua eta dokumentala aurkeztu ditu Garabide kultura elkarteak asteon. Hain zuzen ere, hezkuntzak hizkuntza gutxituen biziberritzean izan dezakeen eragina aztertzen dute *Hezkuntza* lanaren egileek.

Liburua egiten Aretxabaletako eta Arrasateko udalek lagundu dute, besteak beste. Garabi-

deko presidente Andoni Barreñak azaldu duenez, proiektuaren helburu nagusia hizkuntza gutxituak dituzten herrietan baliaerriak izan daitezkeen bertako esperientziak islatzea eta erakustea da. "Liburua eta dokumentala ez daude euskal herritarrengan pentsatuz eginak, herri eta komunitateentzat sortuak baitira".

Euskal hezkuntzaren hasierara Euskal esperientzia zuen ardatz lehenengo liburua; euskararen

estandarizazioa proiektuaren bigarren atalak; eta hirugarrenak aldiz, hedabideak.

Laugarren atala sortzeko, berriz, hezkuntza hautatu dute. "Oso zutabe garrantzitsua da hizkuntza berreskuratu edo biziberritu gura duen komunitatearentzat. Gainera, beste toki batzuetan gu duela 30-40 urte geunden bezala daude, ez dute materialik, ez laguntzarik instituzioen aldetik... Hala, eskola eredu berria sor daitekeela erakusteko modua izan daiteke gure ekarpena".

Gerora arrakastatsua izan den hezkuntza prozesuaren hasieratik hasten dira liburua eta dokumentala, orduko egoera islatuz eta emandako urratsak azalduz: gurasoen, herritarren zein irakasleen lankidetzak, materialik ezari aurre egitea eta beste jaso dituzte.

Lan istripua izan zuen 23 urteko arrasatear batek eguaztenean Bergarako Sofema estanzazio lantegian

Eguazten arratsaldean, uztailearen 16an, lan-istripua gertatu zen Bergarako Sofema SL estanzazio fabriketan. Hain zuzen ere, prentsa batek A.R. siglak dituen 23 urteko arrasatear bat harrapatu zuen besotik. Gertakariaren ondorioz, Donostiako Ospitalera eraman zuten gaztea eta ebakuntza egin behar izan zioten, zituen zauri larriengatik. Hala, azkenean, besoa moztu egin behar izan diote gazte arrasatearrari. Ikerketa abiarazi dute gertatutakoa ikertzeko asmoz, Goienak jakin duenez.

Arantzazuko Parketxeak Aloñara irteera antolatu du biharko, mendia ilunabarrean ezagutzera emateko

Arantzazuko Parketxeak, Arantzazuko Adiskideak Elkartearen lankidetzarekin, mendia ilunabarrean ezagutzera emateko irteera egingo du zapatu iluntzean. Arratsaldeko seietan elkartuko dira, Arantzazuko Parketxeko harrera-lekuan; bada, bertara joateko, 3 euro ordaindu behar dituzte helduek eta 2 euro haurrek. Aurrez eman behar da izena, Arantzazuko Parketxeko telefono zenbakira deituta: 943 78 28 94.

GSR Debagoienakoak Urkulu aldean

Urkulu bisitatu zuten GSR Debagoiena egoitzakoek hilaren 10ean. 30 egoiliarrek eta 22 boluntariok autobusa hartu, urtegi ingurura joan, merienda goxoa egin eta buelta bat emanda, Aretxabaletako egoitzara itzuli ziren, arratsalde ederra igarota.





Bai Euskarari Ziuertagiriaren Elkarteko zuzendaria, Rober Gutierrez, hitzaldia egiten atzoko ospakizunean. | JAGOBA DOMINGO

Euskara planaren helburua lortu dela ospatu zuten Antzuolako Elayn

- ▶ Euskara plana izan zuen lehen enpresa izan zen Elay, 1992an
- ▶ "Langile guztien konpromisoa izan da gakoa", esan zuen Baztarrikak

J.B./L.K. | ANTZUOLA

Jaiekin bat eginda, ospakizuna izan zuten joan den egunean Elay lantegian. 90eko hamarkadan hasi zuten euskalduntze planaren amaierara iritsi dira, euskaraz egiten dute lan gaur egun Elayn. Hori ospatzeko eta ahalegin horretan langileek egindako ekarpena eskertzeko, ekitaldi berezia egin zuten atzo eguerdian. Bertan izan ziren Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako sailburuordea eta Kontseiluko eta Elhuyarrek kideak. Ekitaldian berezi-

ki gogoan izan zuten Jose Luis Elkoro, eta gogorarazi zuten hark eman ziola euskara planari lehenengoko bultzadetakoa bat.

"Elay erreferente da"

Euskara lantegian txertatu eta zabaltzeko lanean arduratzen izan du Anaje Narbaizak. Horregatik, bere ibilbideagatik eta euskara lan munduan normalizatzeke egindako ekarpenagatik, Narbaiza saritu zuten ekainaren 28an: Bai Euskarari Laguna saria eman zioten. "Ametsa kolektibo-

ki bete dela" nabarmendu zuen atzo Narbaizak.

Izan ere, euskara plana izan zuen lehenengo enpresa izan zen Elay; 1992an egin zuen hori. "Lan munduaren euskalduntzean aitzindaria izan zen Elay eta, horregatik erreferente da", esan zuen ekitaldian Kontseiluko Bai Euskarari Ziuertagiriaren Elkartearen arduradunak, Roberto Gutierrezek.

Elay Taldearen euskara planak hasieratik izan zuen Eusko Jaurlaritzaren bultzada eta, Hizkun-

tza Politikarako sailburuordeak, Patxi Baztarrikak ekitaldian esan zuenez, "langile guztien konpromisoa" izan da euskara planak arrakasta izatearen "gakoa".

Kanpoko lantegietan ere bai

Orain 20 urte baino gehiago hasitakoa amaitu da, baina ez, ordea, lana; izan ere, beste fase bati ekingo diote orain Elayn, munduan zehar - Mexikon eta Txinan - dauzkaten lantegietan euskararen lekua aurkitzeko helburuarekin.

Uraren eta Errekaren Astea eta argazki lehiaketa, urrian

L.K. | ARRASATE

Urriaren 13tik 19ra arte, Ura eta Erreka Deba Ibarrean delako astea egingo du Debagoieneko Mankomunitateak, honako helburuekin: "Debagoien-darrak gure erreka garbia eta uraren kalitate egokia mantentzeko ditugun azpiegitura berriak ezagutzeaz gain, erreka duen benetako balioaz jabetu eta ur garbia baino askoz ere gehiago dela ohartzeara".

Horretarako, hainbat ekitaldi prestatzen dabil mankomunitatea: erakusketak, hitzaldiak, erreka garbitzeko eguna, araztegiatara bisitak... Udako argazki lehiaketa ere egingo dute, honako gaiarekin: Ura eta Erreka Deba Ibarrean. Hiru kategorია izango dira: 14 urtera artekoena, 14-65 urte artekoena eta 65 urtetik gorakoena. Parte-hartzaile bakoitzak, gehienez, bi argazki aurkez ditzake, biak formatu digitalean. Argazkiarekin batera adierazi behar dira kontak-tua, adina eta izenburua. Argazkiak bidaltzeko azken eguna irailaren 20a da.

Jendearen botoa

Aurkeztutako argazki guztietatik 30 aukeratuko dira aurre-aukeraketa batean, eta erakusketa egingo da Debagoieneko herri guztietan. Erakusketa ikustera doan botoa eman ahal izango du, eta bertara joan barik, udal guztietako eta mankomunitateko webguneetan ere ikusgai egongo dira nahi duenak bozkatu ahal izateko. Bozketaren ondoren irabazleak izendatuko dira.

Kategoria bakoitzean irabazle bat egongo da eta kasu guztietan oparia bertako produktuen otzara izango da. Argazki irabazleak Ura eta Erreka Deba Ibarrean astean izendatuko dira eta aipatutako webguneetan argitaratuko dira.

Argazkiak eta datu guztiak posta elektronikoz bidali behar dira: argazkilehiaketa@debagoiena.com.

Euskadi atzeraldi ekonomiko arinago baina luzeagoan dagoela esan du Laboral Kutxak

Hainbat hiruhilekoan jarraian txikitu da Euskadiren barne produktu gordina

L.K. | ARRASATE

Euskadiko Barne Produktu Gordina % 1,2 txikitu zen iaz, eta Nafarrokoa, % 1,4, Espainiaren batez bestekoaren pare. Ekoizpen-datu positiboak egon diren bi urte eta gero, 2012an atzeraldira bueltatu da euskal ekonomia. Hori da Laboral Kutxak 2012ko euskal ekonomia txostenean batzen dituen datu batzuk. Joan den astelehenean aurkeztu zuten txostena Xabier Egibarrek, Laboral Kutxako Negozio-garapen zuzendariak, eta Josu Madariagak, Azterketa saileko zuzendariak.

Atzeraldia 2009koa baino arinagoa da, baina luzeago irausten dabil, hainbat hiruhilekoan

jarraian jausi baitira Euskadiren eta Nafarroaren BPGak.

Langabezia, % 6 handiagoa

Oraingo atzeraldia luzeago irauten dabilelako, lan-merkatuaren portaera "kezkarria" dela esan zuten Egibarrek eta Madariagak: "Lanpostuen suntsiketa errealtatea da, EAEn % 6 jausi baita", esan zuten. Nafarroan % 4,2 jausi da, eta Espainian, % 4,5.

Langabezia tasa % 14,9koa izan zen iaz EAEn, 2011n baino hiru puntu gehiago. Nafarroan % 16,2 izan zen, eta Espainian, % 25. Tasa horren "anormaltasunak" agerian uzten du, Laboral Kutxaren esanetan, lan-merkatua

"gaizki" funtzionatzen dabilela. Bereziki kezkatuta azaldu zirenean gazteen langabezia tasekin.

Nekazaritza, salbuespena

Eskaintzaren aldetik, "ahulezia orokorra" ikusten dute "sektore guztietan, nekazaritzan izan ezik". Eraikuntza % 6,3 murriztu da EAEn, eta % 8,1, Espainian. Nafarroan, gehien murriztu dena industria sektorea da, % 4,2rekin. Enpresen emaitzek ere igarri egin dute krisiaren eragina, eta erregistroak negatiboak dira.

Aurreikuspen txarrak

Iazko abenduan Laboral Kutxak egin zituen aurreikuspenak bai-

no txarragoak izan dira oraingoak. Hain zuzen, 2013an EAEko BPG % 1,3 txikituko dela uste du erakundeak (Espainiakoa, % 1,4); KPIa, % 1,7 (Espainiakoa, % 1,6); eta urtea % 16,5ko langabezia tasarekin bukatuko duela uste dute (Espainiak, % 27,2ko tasarekin).

Pamiela argitaletxeak, Kulturaren aldeko Euskal Fundazioaren babesarekin

JUAN ZELAIA XIII. Saiakera saria


antolatzen du, euskaraz idatzitako edozein gai buruzko saiakerak edota iritzi lanak zabaldu eta sustatzeko asmoz.

Saria: 9.000 €

Lanak bidaltzeko: Pamiela etxea (Juan Zelaia Saria), Agustindarren Industrialdea-Soltxate. G. kalea-31013 IRUÑEA.

Irailaren 30a arte

Tel.: 948 32 65 35
soltxate@pamiela.com
Arauk: www.pamiela.com



ZABALIK

NAGORE IPIÑA
http://goiena.net/iritzia/



Hezkuntzaz eta teknologiaz

Izenburua irakurrita askok pentsatuko duzue ez dela gairik egokiena garai honetarako. Izan liteke, baina uste dut irakasleok "hurrengo urterako planen *stage-a*" deituko diodan une bat bizi izaten dugula oporrak hartu bezain pronto. *Stage* horretan nago ni neu ere.

Jakin badakigu ezagutzaren logikaz eraturako gizarte honetan eta modernitate likidoaren mesedetara, hezkuntzaren erronkak ugariak direla.

Erronka horien artean dago Informazio eta Komunikazio Teknologien erabilera.

Aldeko eta kontrako arrazoi ugari aurki daitezke non-nahi (Interneten bereziki), baina inongo formula magikorik topatu gabe. Nire ustetan, formula magikorik ez aurkitzeak ahalbidetzen digu gure gelako praktika edo proiektu pedagogikoarekin bat datorren espazio sozial horizontal bat sortzea.

IKTak modu esanguratsuan erabiltzean lan autonomorako zein lankidetzarako espazioak sortzen dira; hau da, ezagutza partekatze eta eraikitze eremuak. Horregatik, argi dago teknologia bera ez dela gakoa, bitartekoa baizik. Eta bitartekaritza horretan, pedagogia, diseinua, ikaste eremuak, faktore sozialak eta faktore kulturalak beharrezkoak suertatzen dira ikaskuntzaren garapenerako.

Ez da lan erraza, ez, baina uste dut IKTek eskaintzen dituzten baliabideak ikaste-irakaste prozesuen zerbitzura jarri behar direla. IKTak ikaste eta ezagutza eraikitze teknologiaz bihurtu daitezkeen eredu pedagogiko globalean integratu behar dira.

Hori izango da nire "hurrengo urterako planen" artean lehenetsiko dudana.

Hau da, etorkizuneko irakasleen formazioaren garrantzia medio, horiei hasieratik lagundu beharko diegu IKTak modu integratu eta esanguratsuan baliabide didaktiko gisa erabiltzeak esan nahi duena ulertzea.

"IKTak eredu pedagogiko globalean integratu behar dira"

USTEAK USTE

GOIATZ ARANA | goarana@goiena.com

Sanferminak gora-behera

Zeresana eman dute sanferminetan zapatuko entzierroko jende pilaketak, txupinazoan eskegitako ikurrinak eta une horretan bertan udaletxe plazan ardoz blai egindako gizon-emakumeek. Azken irudi horrek eman dit niri zer pentsatu gehien; zer pentsatua eta nazka, lerdea zerien mutilek sorbaldara igotako neskei arropak kendu eta bular eta ipurdiak nola ukitzen zizkieten ikusirik. Baina badirudi Iruñeko alkateari oharkabean pasa zaiola -ikurrinaren kolore zuri-gorri-berdeek begiak erre zizkieten nonbait-, eta beste batzuek uste dute gisa horretan ibiltzea ohitura dela hemen; hala esaten entzun nion neska bati telebistan, herrialde bakoitzak bere ohiturak dituela. Ohitura? Horrek ez du izenik.

MARRAZKIZ

ALEX UGALDE | http://goiena.net/iritzia/



HANDIK ETA HEMENDIK

Esklerosi anizkoitza eta erlea

Pello Zubiria
argia.com/blogak/pello-zubiria/

Egunotan, zehazki uztailaren 14an, hainbat jende busti baita borondate onez esklerosi anizkoitza daukaten pertsonetik elkartasunez, nire aldetik bustitzeko modu ona iruditu zait aipatzea gaixotasun bera duten batzuek erlea darabilte beren arazoa hobetzeko edo gutxienez arintzeko.

Gaixotasun kroniko baten morrontzan bizi diren kolegei interesatuko zaielakoan aukera terapeutikoen almazena aberastea.

Erlearen beste produktuek gain zehazki pozoia erlearen ziztadaz, zein apitoxina elaboratzen erabilera klasikoetako da esklerosi anizkoitzarena.

Interneten aurkituko dituzu horien erreferentziak, aldekoak bezala eszeptiko eta baita kontrako eta salatzaileak ere.

Proposamenetan kroniko bati gehienetan baliagarrienak zaizkio interes ekonomikorik gabeko jendeen lekukotasunak,

bere egoeran dauden edo egon direnenak.

Nik bat gomendatuko dut hemen, hortik aurrera norberak Interneten nola bilatu asmatuko du eta.

Maryse Pioch Pradesek idatzita dauka "*Les abeilles ont guéri ma sclérose en plaques*".

Ñabarduratzat, duela lau urte fotokopiatan eskutik eskura banatzen zuen bertsioan orain inprimatutako "*ont guéri*" (sendatu dute) hori "*soignent*" zen (artatzen dute), agian argitaletxeak ukituko zion.

Gaixotasun kroniko baten jabe denak badaki betikoz sendatzea ahazturik helburua duela eritasuna geldiaraztea, minak gutxituz eta ondorioak ahal bezainbat murriztuz.

Hitzaurrea Henry Joyeux doktoreak idatzi dio.

Marysek kontatzen duenez, maila handiko kirolari zela diagnostikatu zioten esklerosia.

Liburuan kontatu du zein izan den bateko eta besteکو probatuz bere ibilbide terapeutikoa, lorpen eta porrotekin.

Jean Signaleten errejimena darabil elikatze modutzat, osatuz hori erleen produktuekin, funtsean propolia, polena eta erleen ziztadak.

Azkenean, familiako antzinako usadioa berreskuratuta erlauntzak jarri ditu Marysek.

Bere hitzaldi bati buruzko kronika laburra badu *Midi Libre* egunkariak, eta *Apitherapie.info*-k liburuaren atalatako bat eskaintzen du sarean.

Guk Montpellierran ezagutu genuen Maryse duela lau urte Apimondia zela eta, ARGIAN orduan kontatu bezala.

Frantziako Vias herrian bizi baita, Beziers inguruan, han *Midi Libre* egunkariak duen kazetari Jean-Louis Selliék blogean eskaintzen ditu liburuaren aurkezpen eguneko kronika ("*Les bienfaits de l'apithérapie évoqués par le Professeur Joyeux au restaurant 'Le Jardin'*") eta emakumeari egin dion bisita baten kontakizuna ("*Maryse Pioch témoigne: 'Les abeilles ont guéri ma sclérose en plaques'*"), amaierarako gorde dugun argazki zirrargarriz hornitua: Maryse bera urte luzeko atzeraldiaren ondorioz gaixotasunak kondentatu duen kadira gurpildunetik zutitzeko zutitzeko ariketak egiten.

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkarte
E05 Basabe Poligonoa,
20550 ARETXABALETA

Lehendakaria Aitor Izagire

Zuzendari nagusia Iban Arantxabal

Zuzendaria Eneko Azkarate
Erredaktore burua Ubane Madera
Sailetako arduradunak Xabi Urtzelai (Kirola), Inaki Iturbe (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

Maketazioa Inaki Iturbe, Kepa Martelo
Argazkilaria Imanol Soriano
Publizitatea Mireia Larrañaga,
Amaia Mundifano, Zortza Martin,
Imanol Elortza

Testuen zuzenketa Sergio Azkarate.

Harpidetza eta banaketa Marta Leturia.

Administrazioa Agurtzane Gaintzarain,
Ane Berebizar, Iratxe Bengoa



EGOITZA NAGUSIA - GOIENA PAPER
ARRASATE 20500:
Otalora Lizentziaduna 31 | 132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00

ORDEZKARITZA
ARETXABALETA 20550:
E05 Basabe Poligonoa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 09

Publizitatea Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 09 | publi@goiena.com

Harpidetza Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.com

Legu Gordailua: NA-3329/2000
ISSN: 2174-369X
Tirada: 20.100 ale
Difusioa: 19.951 ale



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Eusko Jaurlaritzak diruz lagundutako aldizkaria

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

**Jar ezazu zure autoa
puntu-puntuan
eta ondo
pasa oporrak**

**bateria
argiztapena
aire girotua
iragazkiak
balaztak
gurpilak
olio nibelak...**



ALMACENES LASCAR

Pneumatikoak • Olio aldaketak • Garbiketak

Amillaga 32 • 943 76 10 38 / 943 76 19 11 • Bergara



• Olio aldaketak
• Mekanika azkarra

Leizeaga 1B BERGARA - Tel.: 943 763627
E-posta.: bergarapneumatikoak@gmail.com



AUTOAREN KRISTALDEGIA
•
INPAKTUEN KONPONKETA
•
LAMINA SOLAR
BAIMENDUAREN INSTALAZIOA

DESA CRISTAL

Santalaitz, 6-5. Pab. / ITVaren kalean
Tel.: 943 76 36 09 - BERGARA



MULTIMARKA GARAJE BERRIA

Mekanika, elektrizitatea, karrozeria eta pneumatikoak
Amillaga 49 • 943 76 22 43 • Bergara
fordberria@telefonica.net

Eskaintza handiak!



CITROËN

ION AUTOAK

Mekanika • Karrozeria • Pneumatikoak • Garabi zerbitzua

Amillaga 36 • 943 76 47 49 • Bergara

Murillo Garajea



Leizeaga 4 • 943 76 13 84 • Bergara

TXOMIN GARAJEA

Eskaintza bereziak pneumatikoetan!

Lizarraga auzoa 8 • 943 78 70 77 • Antzuola

Carlos Ramirez | Venezuelako Fundacomunal erakundeko kidea

"Venezuelan bultzada eta laguntza eman zaie hedabide txiki, komunal eta autoeratuiei"

- Koordinakunde Bolivartarrak gonbidatuta, gurean da Venezuelako esperientzia kontatzen
- "Hedabideen gaia garrantzi handikoa da Venezuelako komunitate txiki eta urrunetan"

ENEKO AZKARATE | ARRASATE

Koordinakunde Bolivartarrak gonbidatuta, gurean dira Venezuelako informazio eta komunikazio teknologiak eta programak herritarren artean hedatzen lanean diharduten bi venezuelar: Carlos Ramirez eta Ymaru Parra. Ramirezekin izan gara. Hango esperientzia, Venezuelaren egoera eta hemen ikusitakoa ditugu berbetagai.

Herri komunikazio eta hezkuntzako ekintzailea zarela diozu. Kazetaritza ikasketak eginak dituzu?

Ez. Komunikazioaren alorrean formazio jarraitua jaso izan dut, baina ez formalki. Izan ere, herri komunikazioa ez da unibertsitatean erakusten. Eraiki ditugun eskoletan eta bai, eta ekinaren ekinez formatu ahal izan naiz.

Noiztik?

Aspaldian, 12 bat urtean, dihardut herri hezkuntzaren eta herri komunikazioaren alorrean. Berezi, formazioan. Infocentros erakundeko koordinatzaile nazionala izan naiz eta orain Fundacomunal-en dihardut; Reinaldo Iturriza ministroa da bertako zuzendari. Komunitate ezberdinei erakusten diegu irratia, ikus-entzunezkoak, hedabide komunitarioak, sareko hedabideak eta abar egiten.

Garrantzi handi ematen diozue teknologia berriei eta informazio-komunikazio baliabideei?

Begira, Latinoamerikako beste herrialde batzuetan bezala, Venezuelako herri komunikazioak legedia oso zorrotza dauka hedabide komunitarioak edo alternatiboak sortzeko. Hedabideak botere ekonomiko eta politikorako tresna indartsuak izan daitezkeela jabetzen direnean, agintariak zailtasunak jartzen dituzte herritarren eskura dauden eta herritarren ahotsa duten hedabideak sortzeko. Hori ageri-agerian geratu zen Venezuelako 2001n, Chavez presidentearen aurkako estatu kolpe ahaleginetan. Herriak ahotsa erabili zuen, bere baliabideekin, eta horiek erabakigarriak izan ziren benetako egoeraren beste ikuspegi bat kontatzeko, Estatuaren mendeko hedabideak itxi egin baitzituzten.

Ze hedabide mota zegoen herritarren eskura?

Telebista eta irrati kate komunal batzuk eta sare sozialak.

Autoeratuak hedabideen garrantziaz diharduzu, hortaz?

Hori da. Estatuaren mendeko hedabideez gain, eta horiek legezkoak eta beharrezkoak dira, gainera, herriak ere eskubidea dau-



Carlos Ramirez, Arrasaten, oraingo astean. | ENEKO AZKARATE

ka bere ahotsa entzunazteko, bere hedabideak kudeatzeko. Venezuelako Estatuak berak diruz lagundu ditu hedabide txiki horiek. Kontraesanak kontraesan. Venezuelako iraultza aipatzen dugunean ez dihardugu obra bukatu bati buruz, prozesuan, eraikitzen, dabilen zerbaiti buruz baizik.

Kontraesanak aipatu dituzu, baina zeri buruz diharduzu?

Esaterako, Venezuelako, gezurra badirudi ere, hedabide komunitarioen legeak mesede egiten dio kapital handiari, hedabide talde txikien kaltetan. Baina, edozelan ere, Estatuak bultzada eta laguntza eman zaie hedabide txiki, komunal eta autoeratuiei. Askotan, lehenago heldu da dirua, bali-

bideak, antolaketa baino. Eta, hala, esperientzia asko ez dira aurrera atera, teknologia eskura eduki arren.

Ze ondorio ekarri du hedabide komunalak bultzatzeko ekimenak?

Erabateko eraldaketa proiektu arrakastatsuetan, herri boterearen garapena sortuz. Une honetan, hedabideen gaia garrantzi handikoa da Venezuelako komunitate txiki eta urrunenean ere. Jakina, Interneten garapenak eta informazio eta komunikazio teknologien demokratizazioak eta sare sozialak denon eskura jartzeak ekarri du edozeinek aukera edukitzea bideoak sortzeko, irrati programak sortzeko, sare sozialak erabiltzeko...

"Egunero eraikitzen dabilen prozesua da Venezuelako iraultza"

"Capriles eskumaren unean uneko txotxongilo bat baino ez da"

"Lider ezin hobea galdu dugu, baina herri antolatutakoak egiten du aurrera"

"Venezuelan bada elite bat segitzen duena aberasten herriari lapurtzetik"

Zenbaterainoko garrantzia izan du Chavezek herri hedabide horien suspertze edo garapenean?

Erabatekoa. Berritort, kontraesan guztiekin. Gurea da oso kultura kapitalista eta paternalista, ustelkeria eta burokratia maila handikoa. Baina, 14 urteotan, Chavez komandantearen lidergoarekin eta gidaritzarekin, pertsonalismoetan erori barik, lortu da asko. Chavezek herri kontzientzia esnarazi du eta gobernuak, erreprimitu ordez, lagundu eta aholkatu egiten badizu eta hitza eman... A ze alde!

Ze egoeretan dago Venezuela une honetan?

Gringoen inperioak eman zion gure herriari petrolio ekoizle izatearen funtzioa. Azkeneko 100 urteotan kultura errentari horretan gaude murgilduta, produkzio ahalmena galdu egin dugularik. Hortaz, azkeneko 14 urteotan, Chavezekin, sozialismorantz egin dugu, herri kapitalista batean, horrek dakarren kontraesanekin. Kontraesan horiek kalte egin die Venezuelako iraultza prozesuari eta horrek hauteskundeetan eragina izan du. Hainbat jende nekatu egin da, ikusi du Estatuak ez dituela haren arazoak konpondu, Estatuaren ikuspuntu paternalista batek gidatuta... Orain, hori guztia gertatu da eskumaren eta

Ameriketako Estatu Batuetako Estatu Departamentuaren setio amaigabearekin. Urteak daroztazagu Estatu Kolpe prozesu amaigabearen eta hedabideak darabilte engainuak eta gezurrak zabaltzeko, krisi ekonomikoak bultzatuz, sabotajeak eginez, drogak sartuz... Capriles unean uneko txotxongilo bat baino ez da.

Chavezen heriotzak ze eragin izan du Venezuelako jendartearen?

Krisi testuinguru horretan, Chavez heriotzak egin dio min handia Venezuelako herriari eta krisi politiko eta ekonomiko area gotu egin du. Ondorioz, gure kontraesanak agerian geratu dira. Eta errealitate bat da iraultza bolibartarraren aldekoak garenak egoera larrian gaudela hurrengo hauteskundeetara begira. Baina, bestalde, egoera hau herriaren dako pizgarri bat ere bada eta agerian geratzen da iraultza bat ezin daitkeela eutsi edo oinarritu, soilik, pertsona batean. Guztiok gara Chavez eta denok batera bakarrik lortuko dugu. Argi dago, egia da, halere, Estatu gizon parerik bakoa, lider ezin hobea galdu dugula... Baina herri antolatuta eta batu batek egiten du aurrera.

Eta Maduro?

Tokatu zaio aurre egitea inork nahiko ezko lukeen errealitate gordina bati eta kudeatzea herri bat egoera zalantzatsu batean. Baina, bai Venezuelako bertan eta baita nazioartean ere, errespetatua da. Eskumak kritikatu du sindikalista eta autobus txoferra izanagatik, diskriminatzaile eta arrazista dela erakutsiz, baina kritika hori Maduroren alde doa. Guretako ohore bat da. Herria da gobernuak. Estatu zaharrak oraindik bizirik dirau, baina berria etorriko da.

Venezuela bitan zatituta dago?

Polarizazioa agerikoa da. Dazkagu Chavezen aldekoak, gehien gozatuak eta Chavezen kontra-koak. Eta muturreko bi joera horiek zatiketa eragin dute familia edo lagunartean ere. Batzuek diote Chavezek Venezuela zatitu egin duela, lehen herri batu bat ginela. Baina lehen ere ez ginen ondo bizi, miseria asko zegoen. Iraultza sozialistak 14 urte eman ditu. Jendeak lan egin behar du jateko, baina badago elite bat herritarrei lapurretan egitetik aberasten segitzen duena oraindik.

Elkarrizketa osoa: eskaneatu QR kode hau poltsikokoarekin.



HERRIAK

ARRASATE

Lezetxiki, aberatsa oraindik

- ▶ Errinzero baten eta lehoi baten aztarnak agertu dira; gaur amaituko da kanpaina
- ▶ Gizakiaren presentzia bermatzen duten harrizko "20 tresna inguru" ere aurkitu dituzte

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Lezetxikikoak balio handiko aztarnategia izaten jarraitzen du oraindik. 1996an Aranzadi Zientzia Elkarteak, Alvaro Arrizabalaga EHUko irakaslea buru zutela, aztarnategiak gordeta dituen *altxor* azaleratzeko ardura hartu zuenetik aurkikuntza interesgarriak egin dituzte urtero. 18. kanpaina ere "aberatsa" izan da: lehoi baten metakarpua eta errinzero baten masailezurra eta hagin bat izan dira aurtengo aurkikuntza aipagarrienak.

Bestalde, gizakiaren presentzia bermatzen duten harrizko tresna ugari ere aurkitu dituzte; "20 tresna inguru", dio Arrizabalagak. Maria Jose Iriarte arkeologoaren arabera, horrek ez du esan nahi beste material batzuekin egindako tresnak erabiltzen ez zituztenik. Harria da ondoen mantentzen den materiala: "Ez zen material bakarria izan, baina bai gaur egunera arte heldu dena".

Gaur amaitzen da kanpaina

Uztaileko lehen astean hasi ziren lanean eta gaur bertan amaituko dute. Egunotan 15 bat ikasle aritu dira lanean batzuek beste, Euskal Herrikoak gehienak: "Ikasleen mugimenduan ere krisia ere igaritzen da, jende gutxiago mugitzen da", uste du Arrizabalagak. Ez dira ikasleak aurkikuntza arkeologikoez interesatzen diren bakarrik. Asteon, Inazio Azkarragaurizar Arrasateko alkatea eta Udaleko beste zenbait ordezkari izan dira aztarnategian, arkeologoek azalpenak bertatik bertara jarraitzen. Era berean, azken urteetako ohiturari eutsiz, ikasleetako baten aita ere bertan egon



Maria Jose Iriarte arkeologoa errinzero baten hagin bat erakusten. | JOKIN BEREZIARTUA



Lehoi baten metakarpua. | J.B.



Askasibar, Arrizabalaga eta Azkarragaurizar, Lezetxikin. | J.B.

ALVARO ARRIZABALAGA | INDUSKETEN ZUZENDARIA

"Kasuistika interesgarriak daude"

Lezetxikiko indusketen zuzendariak aztarnategiaren garrantzia berretsi du.

Animaliez gain, gizakiaren ostatu izan zen Lezetxiki. Nobedaderik badago?

Animalien garezurrak aurkitu ditugu kolpe batez pitzatuta, hezurmuina ateratzeko eta jateko. Gainera, harrizko tresneria nahikotxo ere topatu dugu; horrek laguntzen du esaten hartzairen presentzia erlatiboa dela eta gizakiarena, berriz, askoz garrantzitsuagoa. Duela 175.000 eta 180.000 urte arteko gizakia litza-



J.B.

teke; data zehaztu behar da oraindik.

Zergatik da Lezetxiki horren garrantzitsua?

Hemen dauden kasuistika arkeologikoen oso interesgarriak dira. Oso toki gutxitan aurkitzen dira hemengo baldintzak. Batetik, lau giza espezie eta makakoa aurkitu ditugu. Bestetik, agertzen dira fase batzuk beste aztarnategietan ondo islatuta ez daudenak. Horietan, oparoagoak edo izen handikoagoak izan arren, trantsizio-aroak ez dira hemen bezain ongi identifikatzen.

da egunotan, arkeologia zaletu bat: "Aztarnategi oso inportantea da eta sekulako aberastasuna dauka animalien zein gizakiaren aztarnei dagokienez", esan digu Anjel Garciak.

Orain, duela 175.000 eta 180.000 urte arteko materiala aztertzen dabilta eta, Arrizabalagaren

arabera, beste indusketa kanpaina batzuk beharko dira. Hondo harrira heldu arte ez dituzte lanok amaitutzat joko. Gainera, sedimentuetan behera doazen heinean, kobak sakonera gehiago duela ohartu dira. Auskalo oraindik zenbat *altxor* dituen gordeta Lezetxikik...

ALEJANDRO PRIETO
SALAMANCA



"Materiala nik neuk ateratzeaz gain, estratigrafia urtez urte aldatzen doala ikusteko aukera izan dut hemen, dena aldatzen da. Hori oso aberasgarria da".

IZASKUN SARASKETA
BILBO



"Oso gustura nabil, ia etengabe ari da zerbait irtetzen. Ikasketara garaian eduki teorikoa zegoen bakarrik eta hemen zuk zeuk ikusten duzu zer dagoen".



zetabi
arkitektura bulegoa
bergara
943 76 53 09
zetabi@zetabi.eu

ZIURTAGIRI ENERGETIKOA
ETXEA ALOKATU EDO SALTZEKO BEHARREZKOA
www.facebook.com/zetabi.arkitektura

ITE

ERAIKIA urtea	ITEa
<1900	2013
1901 - 1940	2014
1941 - 1965	2015

eraikinen azterketa teknikoa

Baserritarren azoka bihar Seber Altuben, 14 posturekin

J.B. | ARRASATE

Uztaileko baserritarren azoka izango da bihar Seber Altube plazan, 09:00etatik 14:00etara. Udaleko Enplegu eta Garapen Zerbitzuko Marga Garmendiak aurreratu duenez, udako produktuak erosi ahal izango dira bihar: "Udaberria hotza izan da eta udako produktuak ohi baino beranduago jaso dituzte gure baserritarrek".

Sasoiko eta tokiko produktuez gain, azken azoketan "harrera ona" izan duen landare mintegi ekologikoa ere egongo da bihar: "Baserritar gazte batek norberaren ortua antolatu ahal izateko landare ezberdinak saltzen ditu; oraingoan, udazkenera begirako landareak jarriko ditu salgai", dio Garmendiak.

14 postu egingo dira, "ohi-koak". Arrasateko bost base-ri, bailarako beste lau eta beste eskualde batzuetatik beste bost etorriko dira: "Kale egingo dutenak beste eskualdeetatik etorri ohi direnak izango dira. Jaiak dira herri askotan eta azoka bereziak egiten dituzte". Abuztuan ez da azokarik egingo.

"Alkohol probetan positibo asko irten dira azken hilabeteetan"

Iñaki Arriaga udaltzainburuak udaltzainen lana goraiatu du arlo horretan

U. MADERA / J. BEREZIARTUA | ARRASATE
Iñaki Arriaga udaltzainburuak jakinarazi du azkenaldian askotan tokatu zaiela gidari bati alkohol proba egin eta hark positibo ematea: "Azken hilabeteetan dozena erdi atxilotu inguru izan dira alkohol probengatik. Susmatzen badugu istripu edo zirkulazio lege-hausteren bat izan daitekeela alkoholaren eragina-rengatik, alkohol probak egiten ditugu. Proba horietan positibo asko irteten dira. Udaltzainek lan handia egiten dute arlo horretan. Izan ere, ez da batere bidezkoa norbera ondo joanez gero, alkohola kontsumitu duen baten erruz istripua izatea".

Istripuak eta atxilotuak asteon
Arriagak dioenaren adibide garbi bat izan genuen astelehenean. Bi atxilotu eta bi istripu izan ziren, besteak beste. Atxilotuetako bat istripu baten ostean atxilotu zuten Nafarroa etorbidean -argazkian-. Udaltzainek ikusi zuten gidabaimen barik zihoala eta gainera, alkohol proban positibo eman zuen. Bergarako gizonetzko bat da. Beste atxilotua, berriz, 23 urteko Alje-



Ertzaintza gizonetzko bergararra atxilotzen, astelehen iluntzean. | GOIENA

riako gazte bat izan zen, Arrasaten bizi dena. Poliziaren arabera, lapurretengatik eta drogekin lotutakoekin errekerimendu judiziala zuelako atxilotu zuten. Istripu biak txikiak izan ziren eta ez zuten zauriturik eragin. 20:30ean egin zuten lehen atxilotuak, udaltzainek eta ertzainek: "Laubiden istripu bat gertatu zela abisatu ziguten eta bertaratu ginenean aurkitu genuen bi autoren arteko kolpea. Gidarien artean ados jartzen ez zire-

la-eta, egiaztatu genuen gidari batek erretiratuta zuela gidabaimena alkoholemia arazoengatik, eta positibo eman zuen, 0,60tik gora. Horregatik atxilotu genuen", kontatu digu udaltzainburuak. Epailearen aurretik pasa ostean aske utzi zuten.

Bergarako gizonetzkoa ere aske dago, baina inputatuta. Zitazioa jasoko du Bergarako epaitegian eta epaiketa azkarra egingo diote, zirkulazioaren segurtasunaren kontrako delitua egotzita.

Zahar-Berrikoak materiala biltzen ari dira irailko azokarako

Dirulaguntzen "murrizketa etengabeen" ondorioz, Zahar-Berri mintzapraktika programako kideek finantzaziorako ekintza osagarriak egiten dihardute. Aurten ere euskarazko bigarren eskuko CD, DVD eta liburuen azoka egingo dute; materiala biltzen ari dira. Irailaren 23tik 26ra egingo dute azoka, AEDren Literaturjauziak aprobetxatuta: "Irailaren 19a arte duzue aukera soberan duzuen materiala AEDra ekartzeko. Bestela, materiala jasotzera pasako gara", diote.

Erraustegiak osasun arloan izan ditzakeen ondorioak berba

Arrasate Zero Zabor taldeak hitzaldia antolatu du uztailearen 23rako. Kulturatu izango da hitzaldia, 19:30ean. Antolatzaileek Donostiako ospitalean lanean diharduen Iñigo Suberbiola sendagilea gonbidatu dute erraustegiak osasunean izan ditzakeen ondorioen gainean berba egiteko. Hitzaldia gaztelaraz izango dela jakinarazi dute Zero Zabor taldekoek. Sendagileak urte batzuk daramatza erraustegiak osasunean nola eragiten duten aztertzen.

Debagoieneko PROFESIONAL LIBERALAK

ABOKATUAK

BERNARDINO MAIZTEGI

BERGARA / Irizar 5
Tel.: 943 76 10 81

JUAN ANTONIO SIERRA

BERGARA / Irizar 2
Tel.: 943 76 03 35

BEGOÑA LASAGABASTER

ARRASATE / Iturriotz 15, 1 A
Tel.: 943 79 98 86
Faxa: 943 77 01 08
blasaga@conet.es

RAFAEL ARANBURU

BERGARA / Irizar 5
Tel.: 943 76 10 81

ROSA BEITIA / ATXEN MUNGIA /

NAIARA MENDIBIL (ZENBAKI)
ARETXABALETA / Basabe ind. f-0-10-pab.
Tel.: 943 71 21 12
zenbaki@zenbaki.es

AHOLKULARITZAK

AIERDI AHOLKULARITZA

BERGARA / Artekale 1
Tel.: 943 76 03 50

ANDRA MARI AHOLKULARITZA

ARETXABALETA / Andra Mari auzunea 3
Tel./Faxa: 943 79 29 26
andrama@arrakis.es

ASEGI AHOLKULARIAK

ARRASATE / Otalora Lizentziaduna 4
Tel.: 943 71 25 49
Faxa: 943 71 17 79
asegi@asegim.com

TBG AHOLKULARITZA

BERGARA / Matxiategi 36
Tel.: 943 76 90 83

ZENBAKI AHOLKULARIAK

ARETXABALETA / Basabe ind. F-0-10 pab.
Tel.: 943 71 21 12
Faxa: 943 71 22 68
zenbaki@zenbaki.es

ARKITEKTOAK

BIARK ARKITEKTOAK

ARRASATE / Usaetxe plaza 1, behea
Tel.: 943 79 80 33
www.biark.net

ARKITEKTO TEKNIKOAK

JESUS LASKURAIN PEREZ

BERGARA / Zurradero 4
Tel.: 943 76 53 53

ETXE ADMINISTRAZIOAK

URIBESALGO ADMINISTRAZIOAK

ARRASATE / Otalora 16, solairuartea esk.
Tel.: 943 79 51 25
Faxa: 943 71 19 85
uribesalgo@telefonica.net

PROKURADOREAK

JOSE M. BARRIOLA ETXEBERRIA

DONOSTIA / Easo 57-3 esk.
Tel.: 943 45 27 26 / 656 41 55 49

Igelaren Banda taldearen kontzertua zapatuan eta folklore jaialdia martitzenean

Udazabal programaren barruan, kultura ekitaldi horiei esker bi musika estilo entzuteko aukera dago

NAIARA URIARTE | ARRASATE

Bi kultura ekitaldi antolatuta ditu Udalak datozen egunotarako. Lehenengoa Igelaren Bandaren kontzertua izango da: bihar, 20:00etan, Jose Letona plazan. Bigarrena, berriz, folklore jaialdia: martitzenean, 22:30ean, Monterron parkean.

2000. urtean sortu zen Igelaren Banda taldea, eta urte berean kaleratu zuten lehen diskoa. Zortzi urtean Euskal Herriko

hainbat herritan ibili ziren kontzertuak eskaintzen, baina, denbora batez, etenaldia egitea pentsatu zuten. Orain, berriz, formazio berri batekin datoz, lan berriekin guztiz indarberrituta.

Esperientzia handiko taldekideek osatzen dute Igelaren Banda: Hasier Oleagak jazz mundutik perkusioa ekarri du, Amaiur Cajaravillek kontrabaxua gehitu dio—musika klasikoan



Igelaren Banda: Oleaga, Martinez eta Cajaraville. | ELKARR

eskarmentatua dauka—eta Bixente Martinezek, gitarra.

Kantu klasikoan birmoldaketa
Aurreko kantuen ildoari jarraituz euskal kantu tradizionalak birmoldatzen dituzte, bertsio

propioak eraikita. Folk, jazz eta inprobisazioa da haien musikaren bereizgarri.

Preguntatxo bat da haien disko berria. Arantzazurako erromesaldian kantatzen ziren koplak eta bertso zaharrak har-

tzen dituzte kontuan eta Laboaren eta Leteren abesti bana moldatu dute.

Martitzenean, berriz, Les As du Benin taldeak dantzak eskainiko ditu Monterron parkean.

Benin (Hegoafrika) herrialdeko kultura era askotariko dantza eta erritmoetan dago oinarrituta, eta Vodoun gurtzen dute. Taldea 1991n sortu zuten herriko zenbait gazteek, eta, hain zuzen, haien helburu nagusia Beningo ondare kulturala baloratzea eta zaintzea da.

Hasi zirenetik, Beningo ballet talde nagusia da, eta munduko hainbat herrialdeetan ibili dira. Ikuskizunaren izena *Houetanou* da, eta herriko auzo bat antzertzen dute euren ikuskizunean; hain zuzen ere, gauza materialen eta ez materialen arteko gatazkak islatzen dituzte. Baita gaua eta eguna ere.

Besaidekoak Laguna Negran

Besaide Kirol Elkarteak 31 kidek Demanda mendilerroa eta Urbion mendilerroa irteera egin zuten joan den asteburuan. Hain zuzen ere, zapatuan, Laguna Negra-Collado ibilbidea egin zuten. Eta domekan, osteran, Lagunas de Neilako bira. Bada, giro aparta izan zuten bi egunetan.



BESAIDE KIROL ELKARTEA

'Amor es todo lo que necesitas' filma Monterron parkean

Komedia erromantikoa, beste klasiko bat. Philip alar-gunak eta Ina bizi-alar-gunak Italian egingo dute topo. Izan ere, Philipen semea eta Inaren alaba bertan ezkonduko dira. Edozein ikuslek berehala ulertuko du argumentua, eta barre egiteko aukera izango du. Gaur, 22:30ean.

ONDO PASAU!

MAALAKO ERRABALEKO JAIK 2013
ARRASATE

UZTAILAK 21, DOMEKA

12:30 Kaleko hildakoen aldeko meza.
19:00 Kontzertu akustikoa Monte taberna kanpoan.

UZTAILAK 22, ASTELEHENA

08:00 Etxafuegoak.
17:00 Haur jolasak.
19:00 Alardea txistulariekin eta txikiteoa.
21:00 Kale afaria.
22:00 Dantzaldia.
23:00 Su artifizialak.



KIMETZ
Taberna
Plater konbinatuak
Ogitarteko hotz eta beroak
Hamburgesak
Pintxoak
Razioak
943 10 97 30
Maalako Errebala 15. Arrasate.

ARREGI ARTE
Maalako Errebala, 8
Tel.: 943 79 56 44
arregi.arte@gmail.com
margolanak
okra gfarikoa
ispiluak erakusketak

Plus Ultra
TABERNA
Tel.: 943 79 20 57

HOTEL ARRASATE ** HOTELA
www.hotelarrasate.com
Biteri Etorbidea 1
Tel.: 943 79 73 22 - Faxa: 943 79 14 16
e-posta: hotel@www.hotelarrasate.com

NATUR HOUSE
Ondo pasau jaixetan!
Maala 6
Tel.: 943 79 04 34 / 670 96 02 43

BC GAZTE...
Jai zoriontsuak izan!
Tel.: 943 79 70 67

MONTE TABERNA
edari, jana eta kirola
Ondo pasau jaixak!
Tel.: 943 79 20 56

EXPRES KAFETEGIA
BOKATAK TERRAZA
Ondo pasau jaietan!

ELKORO
ELEKTRIZITATEA ORO AR
ATEZAIN ELEKTRONIKO
TB SATELITE / DIGITALA
DVD
TELEZABALKUNTZA
MANTENU ZERBITZUA
Tel.: 943 79 45 99
943 79 18 86



Mutiko kuadrilla, eguaztenean, kanpoko igerilekuko berdegunean. | MONIKA BELASTEGI

ESANAK

"Zakarra ez lagatzea eta ura zaintzea eskatu nahi dut"

UNAI ASURMENDI
AGORROSINGO GERENTEA

DATUA

40.000

PERTSONA

Uztailaren 15ean hilabete bete zen kanpoko igerilekua ireki zutela eta denbora horretan 40.000 lagun sartu dira.

Batez beste, 1.300 lagun dabil igerilekuan egunero

laz baino 150 pertsona gehiago zenbatu dituzte eguneko; hilaren 9an, 2.200 sarrera egon ziren

MONIKA BELASTEGI | BERGARA

Hilabete pasa da ekainaren 15ean kanpoko igerilekuak zabaldu zituztenetik eta Agorrosingo arduradunek balantzea egin nahi izan dute. Azaldu dutenez, aurreko urtean baino %13 pertsona gehiago sartu dira: guztira, 40.000 lagun.

Sarreraren batez bestekoei erreparatu gero, eguneko 1.300 pertsona sartu dira, iaz baino 150 pertsona gehiago, eta egunik jendetsuena uztailaren 9a izan zen, 2.200 sarrerarekin.

Unai Asurmendi Agorrosingo gerentearen esanetan, kanpoko igerilekuak arrakasta du eta aurten, gainera, udalekuetako

umeen mugimendu handia egon da, Soraluzekoak, Elgetakoak eta Antzuolakoak izan dira-eta baina hartzen.

Egoki erabiltzeko deia

Baina guztia ez da ondo pasatzea, eta gunea egoki erabiltzeko eskatu du Asurmendik; izan ere, belarretan zakarrak aurkitzen dituzte eta uraren kontsumoa ere handitu egin da, umeak dutxetan jolasean ibiltzen direlako. "Zakarrari dagokionez, 30 litroko seizapi poltsa ateratzen ditugu, eta, zakar hori erabiltzaileek bere lekura botaz gero, lana errazago bukatuko genuke. Uraren kasuan, kontsumoa igo egin da; izan ere,

gazte kuadrilla batzuek jolas egiteko erabiltzen dituzte, eta eskatu nahi diet, mesedez, ez horrela erabiltzeko".

Terraza, banatuta

Tabernako terraza bi zatitan banatu dute aurten. Hala, berdegunetik ezin da taberna barrura sartu, eta kaletik datozenak ezin dira berdegunera jaitsi. Horren harira, Asurmendik azaldu du kexaren batzuk jaso dituztela "batez ere taberna barruraino sartu nahi zuten batzuegandik, baina balantzan ipini beharko bagenitu kexak eta onurak, uste dugu Gureak-ek egin duen apustua banaketarekin ona

izan dela, eta orokorrean balantze oso positiboa egiten dugu", esan du.

Hamaken gunea, arrakastatsua

Zalantza bareko arrakasta izan duen zerbitzua, kanpoko komunitan egokitu duten hamakak lagatzeko gunea izan da. Dozenaka hamaka ikus daitezke bertan. "Herritarren eskariari erantzunez jarri dugu, hamakarekin joan-etorrian ibili beharrik ez izateko, eta benetan izan du erantzun ona", esan du Asurmendik.

Ikastaroetako izen-ematea

Udako kanpainan murgilduta egon arren, datorren ikasturteko kirol jardueretako zozketan parte hartzeko izen-ematea zabalik dagoela aurreratu dute Agorrosindik. 21 jarduera eskainiko dituzte eta, guztira, 2.200 plaza egongo dira. Eskaintza zehatza www.agorrosin.net helbidean kontsulta daiteke.

Horrekin batera, datorren ikasturtean ere doako kirol aholkularitza zerbitzua egongo dela aurreratu dute, abonatuendako eta abonatu ez direnendako.

Euskarazko postal lehiaketa, Jardunekin

M.B. | BERGARA

Udarekin batera, aurten bigarren bezala, Udako Euskarazko Postal Lehiaketa antolatuko du Jardun euskara elkarteak, komunikazio informala eta idatzietan euskara sustatzeko helburuarekin.

Lehiaketan edozein pertsonak parte har dezake, nahi beste postal bidalita. Postalek jatorrizkoak eta euskaraz idatziak izan beharko dute eta edozein lekutatik posta arruntez helbide honetara bidali beharko dira: Udako Euskarazko II. Postal Lehiaketa, Jardun elkarte, Errotalde jauregia.

Gaiari dagokionez, librea da eta epaimahaiak, besteak beste, postalaren edertasuna, originaltasuna, edukia eta idazkera baloratuko ditu.

Irailaren 17ra arte bidali ahal izango dira postalak eta irabazleak tableta eroango du.

Santa Marina jaietako kontzertua egingo du Udal Musika Bandak

Domekan egingo du, 12:30ean, Udal Pilotalekuan, eta sei obrako emanaldia egingo dute. Besteak beste, *Amparito Roca*, *Caballeria Liger*, *Katiuska* eta *Caribbean Concerto* eza-gunak joko dituzte. Aurretik, 11:00etan, kalejira egingo dute herriko kaleetan. Horrez gain, ekitaldi gehiago ere egongo dira domekara arte Santa Marinako jaietan. Besteak beste, boccia txapelketa egongo da gaur, 19:00etan, eta dantzaldia, 22:00etan, Etxarlar aurreko plazatxoan.

OHARRAK

1948AN JAIOTAKOEN IRTEERA ERRIOXARA

Irailaren 21erako ari dira prestatzen irteera, Eltziego eta Guardiara. Izen-ematea zabalik dago -autobusa bete arte-, eta, horretarako, 60 euro sartu behar dira Euskadiko Kutxan ireki duten kontuan.

BEDELKARKO ZENBAKI SARITUAK ATERA DIRA

Herriko dendarien elkarteak udako zozketari dagozkion bost zenbaki sarituak eman ditu aditzera. Saritu bakoitzak 100 euroko bonua jasoko du elkartearen dendetan gastatzeko. Hemen saritutako zenbakiak: 3.029, 5.043, 8.615, 9.371 eta 26.798



POL-POL MENDI TALDEA

Beteranoak primeran ibili ziren Iparraldean

Pol-Poleko beteranoek domekan egin zuten uda aurreko azken irteera. 35 bat lagun joan ziren eta Iparraldean ibili ziren. Zehazki, Bidarratik Donibane Garazirako bidea egin zuten, Munhoa igota. 18 kilometroko eta 840 metroko

desnibeleko ibilbidea egin zuten mendizale beteranoek eta sei bat ordu behar izan zituzten horretarako. Irailean, abuztuko oporraldiaren ostean, ekingo diote berriro ere ibilbideak antolatzeari.



Ramon Arantzabal, Munibe Plazan, bere lanaren ondoan. | JAGOBA DOMINGO

'Alfaren erro karratua' sortak herritarrak probokatu nahi ditu

Muntaia egunero egongo da ikusgai, 10:30etik 13:30ak arte, Munibe plazan

ARANTZAZU EZKIBEL | BERGARA
Bergarako Munibe plazatik pasatzen denak Ramon Arantzabalen lanarekin egingo du topo datozen egunotan. *Alfaren erro karratua* koadro sorta erakusten dihardu egun hauetan, eta udan ere horrela jarraitzea da Arantzabalen asmoa. Joan den egubakoitzean egin zuen lehenengo muntaia, bederatzi metro koadroan manikia eta koadra jarrita. Egunero, 10:30etik eta 13:30ak arte ikusgai egongo da muntaia, eguraldiak errespetatuz gero, behintzat. Modu horretan, artearen lekua kalea dela aldarrikatu nahi du Arantzabalek: "Munibe dinami-

zatu eta, aldi berean, jendeak pentsaraztea nahi dugu, haiek probokatu; eta, nolabait, ingurua aberastu". Artelanak galerietan ikustera ohitura gaudela gaineratu du, baina aldarrikatu du kaleak izan beharko lukeela haien ingurune naturala.

Catherine Opie-ren sorta

Koadro sorta horren sorburua ariketa bat izan zen. Catherine Opie erretratugile amerikarraren auto-erretratu bat ikusi ondoren, hura margotzen hasi zen Arantzabal, eta, ondoren, bere estiloan landu zuen, koloreztatuta eta ukitu abstraktua gehituta. Abs-

trakzioa baita arrasatearrak sortar horretan landu duen estiloa. Koadroan dagoen emakumea, Opie, alfa hitzarekin erlazionatu zuen, hitz greko horrek emakumearekin zerikusi zuzena du-eta; eta ondoren, bertatik beste zortzi koadro sortu zituen.

Arantzabalen artelanak ikusi nahi izanez gero, Munibe plazara gerturatu besterik ez dago. Aurrera begira buruan beste hainbat proiektu dituela ere esan digu artista arrasatearrak; tartean, performance handi bat musika eta dantzez lagunduta - 2010ean, *Gau magikoak Munibeko plazan* ikuskizuna egin zuen.

Santiago jaiak ospatuko dituzte Basalgon, eguaztenean hasita

A.E. | BERGARA
Eguaztenezetik barikura bitartean jaiak ospatuko dituzte Basalgon. Beti bezala, jaiak hasteko, kanpaiak jo eta etxafuegoak botako dituzte, eguaztenean, 18:30ean. Ondoren, ohiko makal jasotzea izango da, auzotarrek lagunduta. Egun handia eguna izango da.

Meza nagusia, 11:00etan

Eguenean, Santiago egunean, 11:00etan meza nagusia izango dute. Ondoren, gaztetxoek txirrindulari igoera izango dute. Iaz, esaterako, 16 txirrindulari lehiatu ziren Basalgoko igoeran. Denetan azkarrena Unai Prieto izan zen: 8 minutu eta 55 segun-

do behar izan zituen auzora igozteko. Lasterketaren ondoren luncha izango dute eta 13:00etan Amuritz eta Iturriaga bertsolarien txanda izango da. 14:30ean bertso bazkaria izango dute -hilarren 21a baino lehen eman behar da izena Iraho tabernan edo auzoko elkartean.

Egubakoitzean, 12:30ean meza izango dute eta ondoren luncha eta umeendako jolasak. 14:30ean, berriz, erretiratuen eta jai batzordearen bazkaria.

Madrilgo eta Frantziako musikariak gaur Espoloian

A.E. | BERGARA

Edu Manzanas gitarra-jotzaile madrildarra eta Fred PG musikari frantziarra igoko dira gaur Espoloiko taulara 22:00etan.

Manzanas madrildarra 16 urterekin hasi zen musika munduan, haren aitak gitarra zahar batean, katean jotzen hasi zen. 1996an, Dinamita Blues Band sortu eta penintsula osoan hara eta hona ibili zen kontzertuak eskaintzen. 2000. urtean Naco Goñi eta Los Bluescavidas taldearekin egin zuen bat. *Directo en Moby Dick* laneko (Gaztelupeko Hotsak) bi abesti grabatu zituen eta *We love the life we live* zuzeneko lana.

Proposamen berriak ditu

Azkeneko urteetan Whiskey Tren taldeari lotua egon da haren bidea. Talde horrekin hainbat *hot session* grabatu ditu (Guindilla Records) Madrilgo hainbat aretotan.

Azkenaldian, baina, proposamen berriak lantzen dabil Fred PG gitarra-jotzaile frantsesarekin. Rhythm-and-blues doinuak dira proposamen berri horiek; eta, hain zuzen, doinu berri horiek eskainiko dituzte Espoloian.

Berumugako hurrengo emaldiak izango dira: uztailaren 26an Beatnblow alemaniarrek eta abuztuaren 7an Kirkit Ensemble.



Edu Manzanas gitarra-jotzailea. | BERUMUGA



ROSA ERRAZKIN

Gaztetxoak zientzia ikasten

Udaleku irekietako 140 bat neska-mutikok zientzia gertuagotik ezagutzeko aukera izan zuten martitzenean. Elhuyarren eskutik hainbat esperimendu egin zituzten Errekalde jauregiko lorategian: adibidez, Mentos-ekin eta Coca-Colarekin ur-koheteak egin zituzten eta bikarbonatoarekin eta ozpinarekin, izotz-lehorra.

UGARTE
ARROZTEGIA - ALTZARIAK

ARROZTEGIA
San Juan 1a
Tel.: 943 76 54 91

ALTZARI DENDA
Ikerleku zeharbidea
Tel.: 943 03 46 30

BERGARA

Promozio berezia inaugurazioagatik
%10eko deskontua produktu guztietan, txartel hau aurkeztuta*

EKO DENDA EDER - LVR

- Sendabelarrak
- Dietetika
- Kosmetika naturala
- Elikagai biologikoak
- Zereal biologikoak soltean

- Pisuaren kontrola
- Kontsulta naturista

Bidekurutzeta 20
BERGARA
Tel.: 943 76 29 27

*Uztailaren 31ra arte baliagarria

Goienaren RENT
Ibilgailuen alokairua

AUTO ETA FURGONETEN ALOKAIKURUA ONATIN

- ✓ Lantokira nahiz etxeko atarira eramango dizugu ibilgailua DOAN
- ✓ Ibilgailuen flota zabala preziorik onenetan
- ✓ Enpresa nahiz partikularrentzako zerbitzua
- ✓ Aireportuko zerbitzua

20€-tik eguneko

943 71 66 52 / 619 44 71 75
goienarent@goienarent.com

WWW.GOIENARENT.COM

Bizikletak ondo erabiltzeko kanpaina

OIHANA ELORTZA | OÑATI
Oinezkoendako kaleetan oinezkoen zein bizikletan doazen segurtasuna bermatzeko, udaltzainak aholkuak ematen ari dira. Arratsaldero egiten dute, oinezkoendako kaleen sarretan: Etxaluzen eta Txaketuaneko bidegurutzetan. Erdiko kaleak oinezkoendako kale bihurtzen direnean, hau da, piboteak goian daudenean, gune horietan bizikletan ezin dela ibili abisatzen diete udaltzainek bizikletan doazenei, eta aholkuak ematen dizkiete. 17:00etatik 19:30era ibiltzen dira lan horretan.

Kale Barria, Kale Zaharra eta Atzeko kalea oinezkoendako kaleak dira 12:00etatik aurrera, piboteak jasotzen direnetik, zirkulaziorako ixten dituztenetik. Oinezko ugari ibiltzen direnean, arazoak sortzen dira oinezkoen eta bizikletazaleen artean, eta bien segurtasuna bermatzeko abiarazi du Udaltzaingoak bizikletaren erabilera egokia sustatzeko sentsibilizazio kanpaina. Foruen plaza ere oinezkoendako gune izanda, han ere ezin da bizikletan ibili.

Udala eta Txanda, herri bizi baten alde lanean

Ikertalde hasi da dagoeneko galderak egiten herriko saltzaile eta erosleei, euren iritzia jakiteko

L.K. / T.M. | OÑATI

Herriko komertzioa biziberritzeko plana martxan jarri dute Oñatin Udalak eta Txandak. Herriko komertzioa bizia, indartsua, lehiakorra izatea da Perco izeneko egitasmo horren helburua. Ikertalde koordinatuko du plana, eta dagoeneko hasi dira bilerak eta inkestak egiten, saltzaileen eta erosleen iritzia jasotzeko.

Egungo beharretara egokitu

Plan horrek dendarien eta erosleen egungo ezaugarriak hartzen ditu kontuan. "Ezaugarri horiek aldatu egiten dira denborarekin eta komeni da sei urtean behin, gutxi gorabehera, egitea horrelako plan bat. Helburua da egoera berriei erantzuna ematea herri ekonomia oinarri hartuta, sinergiak aprobetxatuta eta, bertako merkataritza sustatzeko, eremu ezberdinetan eragitea. Horien artean daude, adibidez: bezeroen eskaria, komertzioen eskaintza, herriko dinamizazioa, lehiakor-



Josu Lizarralde eta Argilora Perosterena. | LEIRE KORTABARRIA

tasuna, eta baita hirigintza ikuspuntutik ere herria nola dagoen antolatuta", dio Josu Lizarralde, Sozioekonomia-zinegotziak.

Dagoeneko lehen bilerak egin dituzte, puntu horiek aztertzeko. "Bezeroaren fidelotasuna lortzea garrantzitsua ikusten dugu. Segurtasuna ere bada gure kezka, lapurreten aurrean, esaterako, eta argiztapen txikiko guneak daudela ere konturatu gara. Bestalde, hutsik dauden lokalekin zer egin aztertzea ere ondo ikusten dugu", dio Txandako ordezkari Argilora Perosterenak. "Plan hau oso garrantzitsua da eta dendari guztiak animatu gura ditut parte hartzera. Bide batez, ostalaritzako profesionalen elkartzeko ere balio dezake", gehitu du.

Galderak eta inkestak

Ikertalde hasi da saltzaileei galderak egiten, baita herritarrei eta denda barruan dauden erosleei ere. Hor jasotako eskariak eta iritzia hartuko dituzte kontuan, gero, herri komertzioa bizirik mantentzeko. "Plana bera komertzio bizia lortzeko erabili behar dugun tresna izango da", zehaztu du Lizarralde.

Krisi ekonomikoa ez ezik, jendeak denbora krisia ere baduela uste dute Txandako kideek, eta horri ze irtenbide eman ere aztertuko dute. Interneteko aukeren aurrean, herriko dendariak ere hasi dira webguneak egiten eta sare sozialak erabiltzen euren produktuak eskaintzeko.



Martitzen iluntzean inauguratu zuten erakusketa. | GUREN AUZUMENDI

Arteari buruz jardungo dute iluntzean Antixena gaztetxean, Asteasteartean barruan

O.E. | OÑATI

Arteari buruzko lehenengo astea, Asteasteartea, abiarazi zuten martitzenean Antixena gaztetxean. Herriko artista gazteen erakusketa zabalik dago orduetik hona, eta astebururako beste bi ekimen antolatuta dituzte, arteari lotuak biak.

'Zer da artea?'

Gaur, egubakoitza, esaterako, Zer da artea? galderaren erantzunak partekatuko dituzte iluntzean egingo dute afari-tertulian. Euskal Herriko Unibertsitatean Arte Ederretako ira-

kasle den Ismael Manterola gonbidatu dute hitzaldi horretara. Domekan, bestalde, musika saioa egongo da Antixena parkean, 20:30ean. Jam Session-a entzuteko aukera.

Antixena gaztetxeko goiko solairuan dago artista gazteen erakusketa, eta hantxe egongo da datorren martitzenera arte. Amaia Martinez de Arenaza, Eñaut Uribealzo, Mirari Sagartzazu, Lezuri Ormazabal, Xabier Mendizabal, Ane Agirre eta Ander Etxanizen lanak daude ikusgai. Ikus-entzunezkoak ere egunero proiektatzen dituzte.

Jaietako azala aukeratzeko azken eguna da gaur

Aurtengo San Migel eta Erro-saio jaiak jasoko dituen egitarauaren azala aukeratzeko azken eguna da gaur, egubakoitza. Guztira, 13 lan aurkeztu dituzte eta kultura etxeko harreraren daude denak ikusgai. Herritarren botoek erabakiko dute azal irabazlea. Kultura etxean ez ezik, sare sozialen bitartez ere eman daiteke iritzia. Herritar bakoitzak aukera bakarra egin ahal izango du. Boto gehien jasotzen dituen lanaren egileak 500 euroko saria jasoko du.

Imuntzo eta Beloki, Madalenako jaien egitarauaren barruan

Gaur hasi eta domekara bitartean Madalena jaiak egingo dituzte Santxolopeztegi auzoan. 20:30ean emango diete jaietako hasiera, Madalenaren jaietsierarekin. Auzo-afaria egingo dute ondoren. Bihar arratsaldean, *Irrien bila* ikuskizuna egingo dute Potx eta Motx pailazoek, 17:00etan, eta 23:00etan dantzaldia eskainiko dute Imuntzo eta Belokik. Kaletik autobusean joateko aukera egongo da, 2 euro ordainduta. Domekan, herri kirolak eta mus txapelketa.

Udako kultur egitaraua kalean gozatuko da gaurtik irailera

O.E. | OÑATI

Kalean egitaraua prest du dagoeneko gaztelekuak. Udako kultura eskaintzak kalean disfrutatzeko aukera eskainiko du, beste behin. Gaurtik (egubakoitza) irailera arte, herriko hainbat txokotan egongo diren musika, festa, antzerki eta ikuskizunak jasotzen dituzte aurtengo egitarauak.

90eko hamarkadako bigarren erdialdean sortu zen *Kalean* egitasmoa, eta, ordutik hona, munduko kulturak herriko kaleetara gerturatzea izan da haren helburua. Baita aurtengoa ere. Gaur, esaterako, Hegoafrikako Touchwood taldeaz eta Teatrakalalalez gozatzeko aukera egongo da.



Teatrakalalalle kalejira. | PIRINEOS-SUR

EGITARAUA

UZTAILAK 19

19:30 Kontzertua: Hegoafrikako Touchwood taldea. San Anton plazan.

21:00 Kale antzerkia: Teatrakalalalle. Kalejira herriko kaleetan zehar.

22:00 Su ikuskizuna: Teatrakalalalle. Foruen plazan.

UZTAILAK 24

20:00 Kale antzerkia: H,02topoz antzezlan. Foruen plazan.

22:00 Kontzertua: Hegoafrikako Bcuc taldea. San Anton plazan.

ABUZTUAK 30

22:30 Kontzertua: Leize, Eko D Bull eta Bagauda taldeak. Atzeko kalean.

ABUZTUAK 31

10:00 Surf festa. Egun osoan, herriko hainbat gunetan.

IRAILAK 1

19:30 Haurrendako antzerki musikatua: *Kanpanolue*. Atzeko kalean.

Txakurren kakak direla eta, isunak eta zakarrontzi berriak

Udalak 16 zakarrontzi ipiniko ditu eta isunak jasoko dituzte kakak batzen ez dituzten jabeek

ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL

Kalean zaborra gaika jasotzeko ontziak ipini ostean, Udalak txakurren kakak batzeko soilik diren zakarrontziak ipini ditu Aretxabaletako hainbat puntutan. Egungo egoera hobetzea eta kaleak garbiago ikustea da helburua, eta, aurrerantzean, txakurren jabeek ez dute aitzakiarik, badituzte-eta non utzi euren txakurrek kalean egindakoak.



Txakur-kakak jasotzeko ontzia. | Z.V.D.M.

Hamasei zakarrontzi

"Hamahiru zakarrontzi ipini dira eta beste hiru falta dira jartzeko". Hala azaldu du Dorleta Eguiadak, Aretxabaletako arkitekto teknikoak. Eta Eguiadak esan duenez, herrian zehar puntu desberdinetan jarri dituzte zaborrontziak: "Arazo gehien, txakur-kaka gehien aurkitu izan diren lekuetan, hain zuzen ere".

Isuna kaka batzen ez dutenei

Zakarrontziak ipini ditu Udalak, eta orain, txakurren jabeek

horiek erabili beharko dituzte, isunik jaso gura ez badute, behintzat. Zigorak 43 euro eta 430 euro artekoak izan daitezke eta hutsegitearen maiztasunaren arabera jabeak ordaindu beharrekoa gehiago edo gutxiago izango da.

Bada, udaltzainek ipiniko dituzte isunak: "Lehenengo zigorra txikiagoa izango da. Beste behin harrapatuz gero, igotzen joango da kopurua".



laz, mus txapelketan. | ANDER MONEDERO

Portasolgo bizilagunak jaietan murgilduko dira domekara arte

Z.V.D.M. | ARETXABALETA

Txupinazoak eta erraldoi eta buruhandiek emango diete hasiera Portasolgo jaiei gaur, 18:30ean. Domekara bitartean makina bat ekintzatan parte hartzeko aukera egongo da.

Portasol, musikaz blai

Musikak bere tokia izango du. Lisboa taldearen dantzaldia eta ERM eta Estulapo taldeen kontzertua izango dira gaur, 22:30ean hasita. Bihar, Esencia de Jalisco talde mexikarrak kalejira egingo du, 17:30ean hasita. Aretz taberna kanpoan Hankaz-gora, Ikara, Grito de Espanto, Auzo Ezezaguna, No-Hope, Gorroto eta Material Rechazado taldeek joko dute, 21:00etan hasita.

Askotariko ekitaldiak

Mus, xake eta kriket txapelketak, su artifizialak, gimnasia erritmikoa eta beste jasotzen ditu jaietako egitarauak. Domekan izango da festetako azken txanpa. Besteen artean, Ibarra-ko zelaian 17:30ean hasita, nagusiei eta 2013an jaiotakoei omenaldia eginez amaituko dituzte jaiak.

Informazio gehiago, hemen: <http://goiena.net/albisteak/portasolgo-bizilagunak-jaietan-murgilduko-dira-domekara-arte/>

Egitarau osoa: eskaneatu QR kode hau poltsikokoarekin.



Matematikak izango dituzte oinarri Kuku Mikuren topaketan

Kuku Miku elkarteko kideak gurasoei zuzendutako topaketak egiten ari dira atzo ezkerero. Gaur, egubakoitza, matematikak izango dituzte oinarri. Hala, 2-3 urtetik aurrerako haurrekin oinarritzko matematikak lantzeko materiala nola sortu eta erabili izango dute hizpide. Gura duten guztiek har dezakete parte, baina parte hartzea baieztatu behar da. Jardunaldia elkarteak Durana kalean duen egoitzan bertan izango da, 17:30ean hasita.

Areto futboleko jokatu gura dutenentzat, entrenamendu librea

Uztailaren 23an, datorren martitzenean, areto futboleko jokatu gura dutenek kirol hori probatzeko aukera izango dute Aretxabaletan. Izan ere, UDATik aditzera eman dutenez, 18 urtetik gorako mutilen taldea osatzea da euren helburu nagusia, eta, hain zuzen ere, interesa duten aretxabaletar guztiei egin diete dei martitzenean Ibarra kiroldegian egingo den eta 18:45ean hasiko den entrenamendu irekian parte har dezaten.

Aretxabaletako taberna eta jatetxeen gida

hemen bada
giro!

Gurea
TABERNA
Lotoak eta
kinielak



Durana 32 ARETXABALETA
Tel.: 943 79 20 64



ORLY
TABERNA



*Giro berria dastatu,
eta Orly aukeratu!*

Herriko plaza 3 • ARETXABALETA

IOSU
taberna
harategia

Urdaitegia-gozotegia
Kroasantegia
Gertatutako janariak

Mitarte 1 ARETXABALETA
Tel.: 943 77 03 08



atseden
vinoteca

Bokatak
Plater konbinatuak
Menu bereziak
Bakailaoa

Araba ibilbidea 27 ARETXABALETA
Tel.: 943 08 10 63
vinoteca_atseden@hotmail.com

PI MATXILAUT
Global elect

EDER
Go Bang



DJ JAIJA
IZARTU tabernan

UZTAILAREN 20an,
00:00etan

izartu kafetegia
Iralabarri plaza 5 ARETXABALETA

Kanpai jotzea, afaria, dantzaldia eta meza dituzte egunotan Marinen

Madalenak dira asteburuan; urtero moduan, Arientzako musika eskolakoak izango dira

M.B. | **ESKORIATZA**

Marinen Madalenak ospatuko dituzte oraingo asteburuan. Bihar, zapatua, hasiko dira ospakizunak; 18:00etan, jaiei hasiera emango diete, kanpai jotzearekin eta etxafuego jaurtiketarekin. Urtero moduan, Arientzako musika eskolakoak izango dira Marinen kanpaiak jotzen.

Ilunkeran, 21:00etan, auzo afaria izango dute lokalean;

auzotar guztiak daude gonbidatuta, elizatean bizi eta baita Marinen jaio baina gaur egun kanpoan bizi direnak ere. Bi ordu geroago, dantzaldia hasiko da, Astiasaran II. arekin eta Lurtxudiorrekin. Jendea dantzatzen nekatu arte iraungo du horrek.

Etzi, ostera, meza nagusia izango da, 12:00etan; eta, elizkizuna amaitzean, mokadutxo hartzeko aukera izango da.



Orain dela bi urteko Madalenatan ateratako irudia. | ALBERTO LETONA

Urriari Kataluniara egingo den bidaiaren izena eman dezakete herriko erretiratuek

M.B. | **ESKORIATZA**

Olazar erretiratuen elkarteak urrirako astebeteko bidaiaren antolatzen ari dira Costa Brava, Bartzelonara eta Garrotxara. Elkarteko bazkideek hilaren 23tik aurrera eman dezakete izena egoitzan; eta bazkideak ez direnek, ostera, abuztuaren 8tik aurrera. Apuntatzeko azken eguna irailaren 12a da.

Urriaren 1etik 7ra izango da bidaiaren, eta hotela Tossa de Marren izango dute. Handik hainbat tokitara joango dira: esaterako, Bartzelona bisitatzeko egun osoa emango dute, baita Garrotxa ikusteko ere. Inguruak bolkanikoak eta eskualde

horretako hiriburu Olot bisitatzearekin batera, hestebeteen museora ere joango dira. Horrez gain, Cadaques, Figueres, Roses eta Empuriabravan ere izango dira, eta irteera horretan Daliren etxea eta museoa bisitatu dituzte. Montserrateko santutegira ere joango dira, eta egun horretan Cordoniu upategi ezaguna ezagutzeko eta hango saldak dastatzeko aukera izango dute.

Esan bezala, elkartearen egoitzan eman behar da bidaiaren izena. Interesa dutenak martitzenetan eta eguenean joan behar dira hara, 11:00etatik 12:30era bitartean.

Hondakinen problematikari buruzko erakusketa eta hitzaldia izango dira datozen egunotan gurean

Hondakinen Mahaiko Bildu, Ezker Anitza-IU, PSE-EE eta Eskoizta Zero Zabor taldeek antolatuta, astelehenean hasi eta hilaren 24ra bitartean hondakinei buruzko erakusketa izango da Eskoriatzan. Gaur, egubakoitza, Gorosarri plazan jarriko dituzte erakusketa osatzen duten informazio panelak, eta, eguaztena bitartean, Ibarraundi museoa ikusi ahal izango dira horiek, honako ordutegian: goizez, 12:00etatik 14:00etara; eta arratsaldean, 18:00etatik 20:00etara. Horrez gain, martitzenean, hilak 23, Eskoriatzako hondakinen gaineko hitzaldia eskainiko dute Debagoieneko Mankomunitateko teknikariek. Bi hitzordu daude aurreikusita: 19:30ean, euskaraz; eta 20:00etan, gaztelaraz. Berbaldira horetan bertan izango dira.



Gazte aretxabaletarra, txeloarekin. | MIRIAN BITERI

Eñaut Zubizarreta | Txelo-jotzailea

"Eskoriatza oso gertukoa dut eta gustura hartuko dut parte Errekan Goran"

Oñatiko Ganbara abesbatzarekin batera kontzertua eskainiko du aretxabaletarrak bihar

MIRIAN BITERI | **ESKORIATZA**

Errekan Gora egitarauaren barruan, Huheziko klaustroan joko du bihar, 22:30ean, Eñaut Zubizarreta txelo-jole aretxabaletarrak Oñatiko Ganbara abesbatzarekin batera. Datozen lehenetan, kontzertuaren eta Bartzelonako musika kontzertuaren egiten diharduen ikasketen gainean egin digu berba.

Nolakoa izango da biharko saioa?

Ni hasiko naiz, Sebastian Bachen *Lehenengo Suite* lanarekin; 20 bat minutu iraungo du tarte horrek. Jarraian, batera arituko gara abesbatza eta biok. Eta azkenik, Ganbararen txanda izango da.

Behin baino gehiagotan ikusi zaitugu agertoki gainean. Dagoeneko ohituta egongo zara?

Ez pentsa... urduri jartzen naiz. Orkestran jotzen baduzu, babes-

"Eskertzekoa da bailarako musikariei jotzeko aukera ematea"

tuta sentitzen zara; baina bakarrik jotzen dudanean... Bihar ere urduri jarriko naiz. Psikologikoa dela badakit, baina, badaezpada, ezki-ura hartuko dut.

Errekan Gorako emanaldietara joateko ohiturarik baduzu?

Bai. Esaterako, joan den astean Dead Bronco eta The Potes ikusten gogoratzen, oso gustura.

Zer da, zuretzat, horretan parte hartzea?

Berezia izango da. Eskertzekoa da, Debagoieneko musikariei jotzeko aukera ematen digutela; eta baita musika klasikoari ere. Eskoriatza ez da nire herria, baina oso gertukoa dut, eta, hortaz, gustura hartuko dut parte.

Noiztik txeloa jotzen?

Sei bat urte nituenean hasi nintzen, Arrasate Musikalen. Hango irakasle batek esanda Gasteizko kontzertuarekin hasi nintzen eta iaz gradu ertaineko ikasketak amaitu nituen. Probak egin nituen Bartzelonara joateko, eta hartu egin ninduten. Lau urteko ikasketak dira hangoak.

Gustura Katalunia aldean?

Bai. Hasieran, hartu nindutenean, ez nekien barre edo negar egin; ez nuen gura haraino joan. Baina dagoeneko ohitu naiz, eta gustura nago. Musikatik bizi izan guratuko nuke, eta, horretarako, ikasi eta mugitu egin behar da. Bartzelonan amaitzean, masterra egiteko asmoa daukat.

Kepa Junkera, Santa Mariñe plazan

Gaur ere musika emanaldia izango da Errekan Gora jaialdiaren bueltan; hain justu, Kepa Junkera musikari ezagunak joko du Santa Mariñe plazan, 22:30ean. Jose Luis Canalekin (pianoa) eta Iñigo Olazabalekin (perkusioa, alboka, txalaparta) batera, energia handiko formatu txikiko emanaldia egingo du hirukoteak. Inprobisazioz eta kreatibitatez jositako kontzertu horren gaineko informazioa topatuko duzue 22. orrialdean.

Zorionak, Carmen, 104 urte bete dituzulako!

Eskoriatzako udaletxean jaiotako Carmen Aranburuzabalak 104 urte bete zituen martitzenean, eta, ohiko den moduan, senitartekoen eta Olazar erretiratuen elkarteko eta Udaleko ordezkarien bisita jasozuen zaharren egoitzan, baita opariak hartu ere. Umoretsu jardun zuen guztiarekin eta kandelari gogoz egin zion putz. Zorionak, Carmen!



GUREN ZUMALDE

Jaitsi da hontza, eta festa da nagusi astelehen goizaldera arte

Gastronomia zein balkoi eta lore ederren sariak banatuko dituzte eguerdian

LARRAITZ ZEBERIO | ANTZUOLA

Patata-tortilla lehiaketarekin emango diote diote gaur hasiera jaietako bigarren egunari Antzuolan, eta, sariak banatu ostean, herri bazkaria eta kuadrillen arteko jokoak egingo dituzte Zurrategin. Ondoren etorriko dira profesionalen pilota partiduak eta Ventos de Saudade eta Kasik eta Joxpa taldeen kontzertuak. Umeek goizez eta arratsaldez izango dute jolasparkea.

Aldaketak udal zerbitzuetan

Gogoratu behar da jaiak direla -eta zirkulazioarendako itxita egongo dela Kalebarrengo 17. ataritik Buztinzuriko 15. atarira bitarteko zatia, eta debekatuta dagoela herriko plazan, eskolaren aurreko aldean eta Kalebarrenen aparkatzea. Autobusak Antiguán geratuko dira. Hondakin bilketari dagokionez, ontziak egubakoitzean, organikoa zapatuan eta errefusa domekan batuko dituzte, 12:00etatik 14:00etara. San Josepeko larrialdi-gunean edukiontzia ipiniko dituzte organikoarendako eta ontzi arinendako. Traste zaharrak martitzenean, hilaren 6an, atera behar dira.



Iaz 16 taldek hartu zuten parte gastronomia lehiaketan. | ANTZUOLAKO UDALA

Balkoi ederrenari ehun euroko saria

Lapetzetxeberri, Ondarre, Ibarondo, Zurrategi eta Sagasti 3 dira balkoi eta lore ederren lehiaketako finalerako sailkatu diren balkoiak. Epaimahai batek egin du finalisten aukeraketa, baina herritarrena da azken hitza. Hala, 12:30etik aurrera, nor bere iritzia emateko aukera izango du boto bidez Kalebarrenen. Irabazleak ehun euroko saria jasoko du, eta antolatzaileek 13:00etarako iragarri dute sari banaketa.

Kirol instalazioen erreserba egiteko azken eguna, astelehena

L.Z. | ANTZUOLA

Irailetik aurrera frontoian, Eztala futbol zelaian edo eskolako patioan kirola egin nahi izanez gero ordu erreserbak egiteko aukera eman du Udalak. Interesatuak astelehenera arte dute eskaera egiteko. Erreserba udaletxean, kultura@antzuola.net helbide elektronikoaren bidez edo 943 76 62 46 telefono zenbakira deituta egin daiteke. Eman beharreko datuak dira: erreserbatu nahi den kirol ins-

talazioa, eguna, ordua eta arduradun baten izen-abizenak eta kontaktua.

Jendaurreko zozketa

Hala ere, gertatzen bada talde batek baino gehiagok eskatzen duela instalazio bera egun eta ordu berean, Udalak jendaurreko zozketa egingo du. Kontuan hartu behar da, dena den, antzularrek lehenetsua dute. Emaizak datorren astean emango dituzte aditzera.

Irailera atzeratu dute udal gimnasioan biharko iragarritako zegoen kirol jaia, jende gutxi zegoen eta

Herriko festen atarian, erantzun txikia izan du udal gimnasioak zapaturako antolatutako kirol festak. Sasoi txarra dela eta jende gutxi dabilela adierazi dute udal gimnasiotik. Hala, ekintza irailera atzeratzea erabaki dute antolatzaileek. Ez dute, oraingoz, ordezko datarik eman, baina ikasturte berriaren hasierarekin batera aztertuko dute gaia.

Bederatzi lagunek osatzen dute behin-behineko kale garbitzaileen lan poltsa; zerrenda ikusgai dago

Udal webgunean daude ikusgai kale garbitzaileen lan poltsa osatzeko Udalak egin berri dituen hautaketa proben emaitzak. Bederatzi lagun sartu dira lan poltsa horretan. Udal webgunean nortasun agirien datuak eta proba bakoitzean lortutako emaitzak agertzen dira. Bi hilabeteko epea zabaldu da, orain, interesatuak nahi izanez gero errekurtsua ipintzeko.

KATAIDE LEIHOAK

Aluminiozko eta PVC-zko metal-arotzen sistemen fabrikazioa eta instalakuntza

Aluminiozko eta PVC-zko leihoak • Pertsiana sinpleak eta segurtasunezkoak • Mallorkinak • Errezel hormak • Fatxada aireztatuak



Aprobetxa ezazu Eusko Jaurlaritzak abiarazi duen Renove plana. 1.000 eurorainoko dirulaguntzak zure leihoak aldatzeko.



Zatoz eta informa zaitetz konpromiso barik.



Bulegoa / Erakusketa / Lantegia
Musakola 21, 8 Atea. 20500 Arrasate

Tel.: 609 55 61 54 - Faxe: 943 53 49 62
aurrekontuak@kataideleihoak.com
www.kataideleihoak.com

ELGETA



Arrandegiko bezeroak erosketa egiten, atzo. | LARRAITZ ZEBERIO

Plastikozko 300 bat ontzi banatu dituzte bi asteotan

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Udalak Kutzabankeko Ekogunerekin batera bultzatutako *Ontzi-ratu zaituz!* kanpaina bere bidea egiten ari da Elgetan. Orain dela bi aste hasi ziren plastikozko ontziak banatzen Amagoia arrandegian, Goikoetxe harategian eta Bea Bouzasen Ugari dendan. Udalak aditzera eman duenez, denbora horretan 300 bat ontzi banatu dituzte herritarren artean.

Arrandegian 120 bat banatu dituzte, harategian 60 bat eta Ugari dendan beste 60. Kanpainak martxan jarraitzen du, eta ontziak

banatzen jarraituko dute arrandegian eta harategian. Herriko plazan ere banatu zituzten ontziak aurreko barikuan. Udalak aditzera eman duenez 60 bat ontzi banatu zituzten egun hartan.

Ontzien erabilera

Merkatariak bat datoz: herritar batzuk hasi dira banatutako plastikozko ontziak erabiltzen, baina sumatzen dute ohitura falta handia dagoela oraindik. Erosleek ohitura hartzea denbora kontua dela uste dute. Amagoia arrandegian banatu dira ontzi gehien,

LIDIA RODRIGUEZ HARAKINA



"Kanpaina ondo doa. Jendeak eskatu ditu plastikozko ontzi berriak harategian, baina oraindik ere askok etxean ahazten dituzte erosketa egitera etortzerakoan".

AMAGIOIA IRAZABAL ARRRAIN SALTZAILEA



"Arrandegian oso ondo doa kanpaina. Jendea konturatu da erosoagoa dela ontziekin, eta baditut bezeroak etxeko ontziekin etortzen hasi zaizkidanak".

eta badirudi bertan erabiltzen direla gehien. "Erosoa da eta arrain mota ezberdinak nahastu daitezke. Okela ez", esan digu erosle batek.

Udalaren balorazioa

Ekimenaren balorazio positiboa egin du Udalak. "Erosketak egiteko orduan banatutako tupperrak edo etxean dituztenak erabiltzera animatu gura ditugu elgetarrak", esan du Oxel Erostarbe alkateak. "Eskerrak eman gura dizkiegu kanpainan gurekin bat egin duten merkatariari".

Auzo-konposta egiteko hiru gune berriak irailean zabalduko dituzte

L.Z. | ELGETA

Amaitzear daude auzo-konposta egiteko hiru gune berrien eraikitze-lanak Torrealdean eta Uruburun. Udaletik aditzera eman dutenez, ordea, ez dira irailean arte erabilgarri egongo. Aurretik batzarra egin gura du Udalak hondakin organikoa auzo-konpost

bidez kudeatzeko izena eman duten familietako ordezkariekin, eta oporrak direla-eta iraileko deitu dute batzar hori. "Auzo-konpost guneak erabiltzeko derri-gorrezkoa da batzar horretan parte hartzea", adierazi du Oxel Erostarbe alkateak. "Batzar horretan, konposta egiteko oinarritzko

ikastaroa eta auzo-konpost guneetako oinarritzko arautegia aurkeztuko dugu", jakinarazi du.

Batzarra irailaren 4an

Batzarra iraileko lehenengo eguaztenean egingo dute, irailaren 4an, 19:00etan, udaletxeko osoko bilkuren aretoan. Uneotan, Elgetako 30 familiak daude auzo-konposta egiteko prest. Interesatu gehiago badago, irailaren 1era arte dago udaletxean izena emateko.

V. FRONTENIS TXAPELKETA

Sei norgehiagoka aste bukaerarako

Aurreko aste bukaeran partidu asko atzeratu ziren. Honakoan, sei daude iragarrita.

AZKEN EMAITZAK

Haritz Gallastegi-Enrike Elkoro / Ibon Untzetabarrenetxea-Eneko Ojanguren	25-11
Sergio Bouzas-Josu Arantzabal / Txema Cot-Juan Carlos Gonzalez	atzeratua
Andoni Elortza-Mikel Beretxinaga / Xabier Ubera-Iban Retolaza	25-10
Oskar Sarasua-Xanti Dosuna / Jon Ugarteburu-Josu Mañarikua	atzeratua
Maitena Mañarikua-Josu Mañarikua / Iratxe Bravo-Iker Lopez	atzeratua
Adrian Gorostiza-Asier Osoro / Mikel Zubiaurre-Aitor Errarte	atzeratua

GAURKO PARTIDUAK, 20:30EAN

Maider Osa-Anartz Agirre / Amaia Iribar-Luisan Alkorta	
Sergio Bouzas-Josu Arantzabal / Txema Cot-Juan Carlos Gonzalez	
Haritz Gallastegi-Enrike Elkoro / Fernando Zenitagoia-Odei Zenitagoia	

ZAPATUKO PARTIDUAK, 16:30EAN

Maitena Mañarikua-Josu Mañarikua / Iratxe Bravo-Iker Lopez	
Rebeka Ubera-Xabier Ubera / Maria Eugenia Olabarria-Santi Dosuna	
Adrian Gorostiza-Asier Osoro / Mikel Zubiaurre-Aitor Errarte	

Eraikinen ikuskapen teknikoaren inguruko informazio batzarra astelehenean, 19:00etan

Eraikinei egin behar zaien ikuskapen teknikoa zer den, Eusko Jaurlaritzak onartutako legeak zein ondorio dituen eta eraikin bakoitzak ikuskapena zein epetan egin behar duen azalduko dute astelehenean, hilak 22, udaletxeko osoko bilkuren aretoan. Ikuskapena egiteko aurrekontuak ere aztertuko dituzte. Bada, batzarra herritar guztiei dago zabalik.

Zabalik da, uztailearen 30era arte, zaintza eta ludoteka zerbitzuetarako aurre-matrikula epea

2013-2014 ikasturtean ere zaintza eta ludoteka zerbitzua eskainiko ditu Udalak. Bi zerbitzuok ikasturte honetan izan dituzten ordutegiak eta kuotak izango dituzte hurrengo kurtsuan ere. Zaintza zerbitzuaren kuota 90 euro da hilean eta ludoteka zerbitzuarena, 30 euro hilean. Interesatuak uztailearen 30era arte dute udaletxean zein danonartian@elgeta.net helbide elektronikoaren bidez aurre-matrikula egiteko.

San Roke jaietako batzordeak egin du zozketa: 1.405, 1.099 eta 300 dira saritutako hiru zenbakiak

San Roke kaleko jaien batzordeak aste bukaeran egin zuen jaietako zozketa. 1.403 zenbakidun txartelaren jabeak Maialde landetxean bi lagunendako afaria edo bazkaria jasoko du; 1.099 zenbakidun txartelaren jabeak, 50 euroko saria Goikoetxe harategian erabiltzeko; eta 300 zenbakidun txartelaren jabeak, 50 euroko saria Amagoia arrandegian erabiltzeko.

LEINTZ GATZAGA

Edukiontzietako bilketa, bideratuta

UBANE MADERA | LEINTZ GATZAGA

Hondakin bilketa sistema berriaren estreinaldi gorabeheratsuari irtenbidea eman diotela jakinarazi dute Debagoieneko Mankomunitatetik. Hain justu ere, edukiontzietako hondakinen bilketan gertatu dira arazoak Gatzagan, eta horren ondorioz, edukiontzia gainezka egon dira. Cespa enpresa da bileta horren arduraduna, eta Mankomunitatetik jakinarazitakoaren arabera, oraingo aste hasieran bertan elkartu dira Cespako arduradunekin bilketa behar den moduan bideratzeko.

Horrez gainera, beira batzeko edukiontzia leku egiteko egokitzapen obrak asteen egin dituzte ekarpen gune nagusian.



Edukiontzia gainezka, astelehenean. | UBANE MADERA

Kuboak har daitezke oraindik

Bestalde, udaletxetik jakinarazi dute organikoak batzeko kuboak banatzen dihardutela asteen; eta

hala segituko dutela, oraindik badirelako herritar batzuk hartu ez dituztenak. Udaletxeko bulegora jo behar da horretarako.

Irailaren 14ra arte ordain daiteke ur eta estolderia zerga

Edateko urari eta estolderiari dagokion zerga ordaintzeko epea oraingo asteen zabaldu dute, eta hala egongo da irailaren 14ra arte. Helbideratuta dauden ordainagiriak banketetik bertatik kobratuko dituzte; ez dauden kasuan, berriz, herritarrek udaletxera jo beharko dute zerga ordaintzera. Halako kasuetan ohi denez, iragarritako epe barruan ordaintzen ez diren zergak gainkarguarekin kobratuko dituzte epea amaitu ostean. Inork erreklamaziorik balu egiteko, horiek ere udaletxean egin daitezke, bulego ordutegian, 09:00etatik 14:00ak bitartean, hain justu ere.

Uztailearen 29a baino lehen eman behar da izena egur zozketarako

Onura publikoko mendietako egurra aprobetxatu ahal izateko izen-emate epea uztailearen 29ra arte (astelehena) dago zabalik. Interesa duenak udaletxera joanda edo bertara deituta (943 71 47 46) eman behar du izena. Behin izen-emate epea bukatuta, eskiera guztien artean zozketa publikoa egingo dute. Zehazteke dute eguna. Hala egiten dutenean, jakinaraziko dute. Zozketa horretan onuradun direnek kontuan hartu beharko dutena da adjudikatutako egur loteak irailaren 30a baino lehen jaso eta eraman beharko dituztela, bestela zigorra izango dute-eta.

Goi mailako ahotsek eta doinuek beteko dute San Martin eliza gaur

Tere Gonzalez da irakaslea, Arrasateko zarzuela arrakastatsuen zuzendaria

JOKIN BEREZIARTUA | ARAMAIO

Bizente Goikoetxea abesbatzak Udalarekin eta Alaiak elkartearekin elkarlanean antolatuta, aurrekaririk ez duen kantu kontzertua izango da gaur San Martin elizan, 19:00etan.

Arrasate Musikalen 40. urteurreneko kontzertuen barruan Arrasateko San Juan Bataiatzailea parrokiaren emandako kontzertu arrakastatsua Aramaion egitea erabaki zuten antolatzaileek, zenbait aldaketarekin. Kontzertuaren atzetik dauden izen propioak ikusi besterik ez dago saioaren maila handiaz jabetzeko.



Vazquez bakarlaria Izagirre eta Artzamendi piano joleekin, Arrasaten. | GOIENA

Sona handiko protagonistak

Arrasate Musikaleko Kantu Eskolako irakasle eta Izaskun Murgia Elkarte Lirikoaren zuzendari Tere Gonzalezek prestatutako kontzertua da -Arrasateko zarzuela arrakastatsua gidatzen ditu-, eta pianoan arituko dira Marta Izagirre -Arrasate Musikaleko zuzendaria da egun- eta Eduardo Artzamendi. Noski, ezin aipatu barik utzi piano doinuen erritimoa abestuko duten bakarlariak: Lander Oianguren, Amaia Zubiria, Ruth Osinaga, Jose Ramon Mendizabal, Susana Vazquez

-argazkian-, Cristina Cubillo eta Katya Martin, besteak beste. Bakarlari bakoitzak hiru kantu abestuko ditu. Kontzertuan denetarik kantuz gozatzeko aukera egongo da: modernoak, habanerak, zarzuelako piezak, operetako kantu lirikoak...

Kutxa bat, borondatea uzteko

Bizente Goikoetxea abesbatzakoek ez dute sarrerarik kobratuko, baina espero dute bertaraten direnek ekarpen txiki bat egingo dutela: "Aurrerantzean ere hala-

ko ospakizun ederrak antolatu ahal izateko, jendeari borondate pixka batekin laguntzeko eskatzen diogu, bakoitzak ahal duen neurrian. Kutxa bat jarriko dugu sarreran horretarako", diote.

Izan ere, San Martin eliza bete gura dute horren berezia den kontzertuarekin: "Aramaioarrak animatzen ditugu eta baita Arrasaten kontzertu hau ikusi barik gelditu zirenak ere. Etor daitezela San Martin elizara, arrakasta handiko eta goi mailako ikuskitzuna izango da-eta".



AIZPEA AJURIAGERRA

San Kristobal eguna ospatzen

Hainbat aramaioarrek San Kristobal eguna ospatu zuten domekan. Uribarriko auzotarrek antolatuta, mezak, trikitalariek, bazkariak eta urteroko bolo txapelketak ez zuten hutsik egin. Sariak banatu zituzten txapelketako hiru onenen artean: urdaiazpikoa, solomoa eta gazta. "Eguraldi ederra egin zuen pagoen azpian egoteko", esan digute.

Santa Marina jaiak aste bukaeran Arexola eta Arriola auzoetan

Urteroko egitarau berberarekin ospatuko dituzte Santa Marina jaiak Arexolan eta Arriolan. Gaurko bertso afarian Andoni Egañak eta Amets Arzallusek abestuko dute (21:00). Bihar eta etzi ere egongo da zertaz gozatu: txirritularitza proba bihar (13:00) eta meza nagusiaren osteko Aramaio dantzarien saioa etzi (13:00), besteak beste.

Konposta egiteko tailerrak "interes handia" piztu zuten

Eguaztenean hamar bat lagun elkartu ziren, udaletxean, konposta egiteko xehetasunak bertatik bertara jarraitzeko. Lehen bilera bat izan zen, herritarrei hondakinak tratatzeko aukera berriaren gainean informatzeko: "Oso interesgarria izan zen eta jendearengan interes handia piztu zuen". Irailean beste saio bat egiteko asmoa dute.

SIMS
SERVIMASA
Sukaldeko altzariak eta osagarriak




BERGARA
Aitziturri 4, 193 posta-kutxa
Tel.: 943 76 19 95 Faxe: 943 76 07 49
E-posta: bergara@servimasa.com
LEZO
103 industria poligonoa
Tel.: 943 52 05 00 Faxe: 943 515757
www.servimasa.com



**Renove
Plana 2013**
Aprobetxa ezazu.



**375 €-rainoko
dirulaguntzak!**



Birziklatzeko erraztasunak ematen dizkizugu.



Zatoz eta informa zaitez!



ATLETISMOA

Europakoan egingo du debuta Ruiz de Azuak

- ▶ Gaur, egubakoitza, lehiatuko da Italian, finalerako sailkatzeko asmoz
- ▶ 4,05eko markan egon daiteke etziko finalerako sailkatzeko gutxienekoa

XABIER URZELAI | ARRASATE

Rietin, Italia erdi-erdian lehiatuko da Malen Ruiz de Azua gaur, Europako Txapelketan egingo duen debutean. Arrasatekoak ondo ezagutzen ditu Espainia mailan dituen kontrarioak, eta bere adinekoren artean koska bat gorago dago -Espainiako Txapelketa irabazi berri du, aire zabalean, junior mailan (3,95)-. European, baina, lehia askoz handiagoa du, eta orain momentuan, bere kategorian italiarrak dira erreferente: "Ea italiar horietatik zerbait ikasten dudana", adierazi dio Ruiz de Azuak Goienari, aste barruan Mojategin egindako azken entrenamendu-saioan: "Nik uste dut bi neska horiek gainontze-koengandik koska bat gorago daudela eta ondorengo taldean

ESANAK

"Negu ona izan da, baina aire zabalean ez dut hobera egin"

"Italiarrak beste maila batean daude, gero gaude besteok"

MALEN RUIZ DE AZUA | ATLETA

gaudela besteok". Ruiz de Azuaren entrenatzaile Jonathan Perezek berretsi digu italiarrak oso indartsuak direla: "Euretako batek 4,70 metroko saltoa egin du aurten, atera kontuak... Besteak, 4,40 metrokoa. Malenen estiloko atletak dira, indar handia dutenak eta progresio bera

daramatenak. Ea Malenek ikusten duen ez direla bera baino gorpuzkera handiagokoak eta sinesten duen euren ondoan lehia daitekeela".

Hala, Arrasatekoak gaur izango duen helburua domekako finalerako sailkatzea izango da: "4 eta 4,05 metro artean saltatu nahiko nuke, uste dudalako marka horrekin domekako finalerako izango naizela. Ea lortzen dudana". Entrenatzaileak badaki hori eta gehiago egiteko kapaz dela: "Ez da izango pertika gogorrrak eraman ez dituelako", dio Perezek. "3,95eko saltoa egiteko erabiltzen duen pertikaz aparte, gogorrago bat ere eraman du. Pertika horrekin 4,10eko saltoa ere egin ahal izango luke, baina gehiago kostatzen zaio saltora ondo sartzea. Motibatuta ikusten dut, eta gorputzaldi onean. Ea zortea duen".

Hilabete txarrak entrenatzeko

Azken hilabeteari zuku ateratzen ahalegindu dira Arrasateko atletak, Europako Txapelketa ahalik eta ondoen prestatzeko asmoz. Izan ere, udaberriko eguraldi txarrak erabat baldintzatu du aire zabaleko denboraldia. Hala, urtearen bigarren zatien gainean galdetuta, Ruiz de Azuari igarri egiten zaio ez dela nahi

modukoa izan, dezepzio keinu bat irten zaio, nahi barik: "Euriaz ezin izan gara ondo entrenatu, salto gutxi egin ditugu [eta tartean izan da, baita ere, selektibitatea]. Pista estalian gustura geratu nintzen, 4,01eko marka lortu nuen, eta nire itxaropena zen aire zabalean marka hori hobetzea. Baina orain arte ez da posible izan, 3,95eko saltoa da egin dudana. Ez da marka txarra, helburutik gertu dago, baina salto hobe egin nahi nuen. Ea oraingo asteburuan lortzen dudana".

Eta Ruiz de Azuak esandako guztiak berresten ditu Perezek: "Teknika oso gutxi landu ahal izan dugu, eta hori igarri egiten da. Azken hilabetean hobeto egin ahal izan dugu lan, eta hasi dira emaitzak etortzen".

Axperen pausoen atzetik

Maialen Axpek iaz izan zuen Munduko Txapelketan debuta egiteko aukera, Bartzelonan. Eta Ruiz de Azuak erreleboa hartuko dio, baina Europakoan. Iaz Bedoñako atletak ezin izan zuen finalerako egon -lesionatuta lehiatu zen-, baina esperientzia oso positiboa izan zela azpimarratu zuen. Eta Ruiz de Azua ere asmo berarekin doa, ikastera eta gozatzera, finalerako sailkatzea buruan badu ere, halako hitzorduak ez dira-eta kirol markak lortzera mugatzen -kategoria gazteetan, behintzat.

Hain zuzen, Maialen Axpek Europako esperientzia errepikatuta ahal izan zuen joan den astean, Finlandian. 4,01 metroko markarekin aurkeztu zen Tenpereko hitzordura, baina ez zuen nahi moduko saltorik egin, eta 3,70 metroko markarekin Axpek agur esan zion finalerako egoteko aukerari.



Malen Ruiz de Azua, aste barruan, Italiara joan ar...



Goiena Klubeko bazkideendako, Euskaltel Euskadiri esker

Tourreko Euskaltel-Euskadiko zortzi kamisetaren zozketa

Irabazleak:

Eneritz Urbieta Atxa bergararra**Nere Unamuno Lekuona gasteiztarra****Pilar Calvo Sudupe arrasatearra****Jasone Barandiaran Osuna eskoriatzarra****Maitane Muñoz Goikoetxea arrasatearra****Josebe Aranburu Iraola Idiazabalarra****Ramon Ugalde Arrieta elgetarra****Izaskun Igartua Ugarte bergararra**

SARIAK JASOTZEKO:

Zatoz, beranduenez uztailak 26rako, GOIENAREN Aretxabaletako bulegora.

Saria jasotzeko, bazkide txartela erakutsi edo bazkide zenbakia jakitera eman beharko da.

GOIENA.

Basabe poligonoa E-0-5 (Araba Ibilbidea) Aretxabaleta.
943 25 05 05Orduetgia: Astelehenerdik eguenera:
09:00 - 18:00.

Egubakoitzak: 08:00 - 14:00.



goienakluba[™]
Euskara irabazle, denok irabazle!

"Txapelketetan hazi egiten da Malen"

Malen Ruiz de Azuaren entrenatzaile Jonathan Perezek gertutik jarraituko du Malen Ruiz de Azuak asteburuan egiten duena, 1.600 kilometrorra egon arren: "Krisia denean igarri egiten da, eta entrenatzaile bakarrarendako lekua zegoen. Bartzelonan Maialenekin ni izan nintzen, eta bidezkoa zen orain beste bat joatea", argitu digu. Hala, Ruiz de Azua ondo ikusten du, sasoiari, eta badaki Arrasatekoak entrenamenduetan beharrean txapelketetan ematen duela benetako neurria: "Txapelketetan oso urduri jartzen da, eta, aurrean egon daitekeela ikusten badu, are urduriago. Baina gero, buelta ematen dio egoerari eta hazi egiten da. Oso lehiakorra da; nik uste dut domekako finalerako sailka daitekeela, lehenengo 12en artean egon daitekeela".



Jonathan Perez. | GOIENA



urrerik Mojategin egindako azken lan-saioan. | AMAIA TXINTXURRETA

Atsedean hartu barik, Madrilera

Malen Ruiz de Azuak apenas izango du atsedean hartzeko astirik, astelehenean Italiatik itzuli eta etxean entrenamendu saioen bat egin eta gero eguenean Madrilera joango da-eta, Espainiako Txapelketa Absolutuan esku hartzea. Eta han, Italian ez moduan, adin guztietako atleten kontra lehiatuko da, bere modalitatean: "Madrilen esango diot agur denboraldiari, eta, azken batean, marka ona egiteko beste aukera bat izango dugu han". Hau da, Italian helburua lortzen ez badu, Arrasatekoak Madrilen izango du amestutako marka egiteko asmoa. Eta ondoren, atsedean hartuko du; kirolzale amorratua bada ere, aitortu digu apenas egingo duela kirolrik: "Abuztuan erabateko relaxa nahi dut, atsedean hartu eta lasai ibili".

FUTBOLA

Ibarran da futboleko botei hautsa kentzeko hitzordua, bihar

Debagoieneko Kuadrillen Arteko Txapelketaren bigarren edizioa, bihar

X.U. | ARETXABALETA

Iritsi da aspaldian zintzilikatutako bota horiei hautsa kentzeko ordua, bihar, zapatua, 09:00etan hasita jokatuko dute eta zazpiko futboleko Debagoieneko Kuadrillen Arteko Txapelketa, Aretxabaletan. Bertan batuko dira egun futboleko jokatzeko duten bailarako taldeetako ordezkari asko eta asko, oraingoan taldekideekin beharrezko lagunekin. Baina haiekin batera jokatuko dute futbol federatua alde batera utzi eta urtean zehar bestelako torneoetan ibiltzen direnek, Labegarrietan, Zaldibarren... Eta, bereziki, haiendako da erakargarria UDAk antolatzen duen torneo hori.

"Futboleko botak janzteko ordua da, eta badirudi jendea gogoz dagoela. Iaz 13 talde izan genituen txapelketan eta dagoeneko 14 taldek eman dute izena. Ez dakigu azken orduan beste talderen bat animatuko den", adierazi du Ibai Zangitu antolatzaileak.

Herri askotako ordezkariak

Orain arte izena eman dutenen artean herri askotako ordezkariak daude: "Joan den astean



lazio txapelketa, Ibarra. | GOIENA

jokatu zuten Zaldibarko 24 orduko txapelketa irabazi zuten Doble Cerokoe ere eman dute izena". Hala, maila politeko taldeak izango direla aurreikusten da.

Talde kopurua zehaztuta dutenean bi multzo osatuko dituzte, eta goizean lehenengo faseko partiduak jokatu dituzte. Arratsaldean, berriz, finalen txanda izango da.

Iaz, Vagitarrians onena

Iazko txapelketan, guztira, 130 jokalaririk hartu zuten esku, eta aurten ez dira gutxiago izan. Vagitarrians taldea izan zen onena. Final estua jokatu zuten Birisekoen kontra, ordu-rako indarrez ere justu-justu zeuden bi taldeetako ordezkariak, eta Vagitarriensek 1-0 irabazi zuten partidua.

SASKIBALOIA

EBA jokatzeko aukerari uko egin dio Natra Oñati taldeak

X.U. | OÑATI

Aurreikuspenak bete dira. Bi urtez EBA mailan jokatu ostean -eta azken denboraldi honetan igoera faserako sailkatu diren arren-, Aloña Mendiko saskibaloia saileko talde nagusiak uko egin dio kategorian horretan jokatzeko jarraitzeari.

Ez da bat-batean hartutako erabakia izan, zuzendaritzako ordezkariak ondo hausnartu dute EBAn ez jarraitzearen gainean. Hala, kirol ikuspuntutik eta arlo ekonomikotik azterketa egin ostean hartu dute erabakia.

Amaitu da ametsa

Oñatiko saskibaloiak sasoi ederra bizi izan du azken bost urteotan. Erregional mailan hasitako proiektuak inoiz uste izango ez zituen emaitzak eman zituen, EBAn iritsi arte. Orain, berriz, beste etapa bati ekingo diote, eta oinarrietara itzuli dira oñatiarrak. Hala, oraindik ez dute argitu talde nagusiak ze kategoriatan jokatu duen, baina horri aparteko garrantzia eman barik, nahiago dute etxeko jokalarietan oinarrituko den taldea sortu.

ATLETISMOA

Bailarako atleta beterranoek domina mordoa irabazi dituzte Espainiakoan

X.U. | ARRASATE

Gasteizen jokatu dute Espainiako Txapelketa, eta bailarako atleta beterranoek oso lan ona egin dute. Hala, Aloña Mendiko atletek zilarrezko bi domina eta brontzezko domina bat ekarri zituzten. Tasio Gomezek zilarra irabazi zuen 1.500 metrokoan. 4x400ekoan

ere zilarra irabazi zuten; Javier Gomezek, Tasio Gomezek, David Huebrak eta Luis Hernandezek osatu zuten laukotea. Eta Juan Carlos Ugartek brontzea jantzi zuen 5.000koan.

Eta Arrasateko Maria Jose Gilek urrezko bi domina irabazi zituen 1.500ekoan eta 800 metroko lasterketan.

ATLETISMOA

Euskadiko Absolutuan Arrasatekoak protagonista, urrezko bi dominarekin eta zilarrezko batekin

Durangon egin zituzten Euskadiko Txapelketa Absolutuak eta Jonathan Perezek urrea jantzi zuen, pertika-saltoan 4,50 metroko saltoa eginda. Oraingoan, ikasleak ezin izan zuten irakaslea gainditu, eta Istar Dapenak zilarrezko konformatu behar izan zuten, 4,30 metroko marka eginda. Lesioek bakean uzten dutenean, Perezek oraindik marka onak egiten ditu. Haiekin batera, Iñigo Uribarrenek ere urrea irabazi zuen salto hirukoitzean, 15,31 metroko saltoa eginda.

MENDI LASTERKETA

Silvia Trigueros korrikalaria nagusitu zen Goierriko 2 Handietan, emakumezkoen kategorian

Eskoriatzan egindako Gabez Takarraren lasterketan erakutsi zuen Silvia Trigueros sasoian zegoela -irabazi egin zuen- eta denboraldiko lasterketa garrantzitsuei begira ondo entrenatzen zebilela. Eskoriatzan onartu zuen, aukeran, lasterketa motza zela, luzeagoetan lehiatzera ohituta dagoelako. Eta asteburuan erakutsi zuen hori, Goierriko 2 Handietan (88 kilometro) onena izan zen-eta. Bigarren izan zen Monika Grajera katalana eta hirugarren, Raket Aperribai legazpiarra.

KULTURA

Formatu txikian eta energia handiaz, Junkeraren ibilbidearen laburpena

- ▶ Eskoriatzako Santa Marina plazan izango da gaur, Errekan Gora egitarauaren barruan
- ▶ Hirukoa izango da taularen gainean: Kepa Junkera, Jose Luis Canal eta Iñigo Olazabal

A. ARANBURUZABALA | ARRASATE

Orain dela 35 urte ekin zion Kepa Junkerak (Bilbo, 1965), autodidakta moduan, trikitiari erabat lotutako ibilbide oparoari. Harrezkero, 20 disko argitaratuta eta trikitiaren nazioarteko erreferente bilakatuta, hasierako ilusioarekin eta energiarekin jarraitzen duela dio, musikari eta pertsona moduan unerik onena bizi duela gaineratuta.

Gaur, egubakoitza, Eskoriatzako Santa Marina plazan izango da, 22:30ean, Errekan Gora egitarauaren barruan. Taularen gainean Jose Luis Canal pianojolea eta Iñigo Olazabal perkusionista izango ditu lagun.

Aspaldiko lagunak ditu gurean

Ondo ezagutzen ditu Debagoieneko plazak, garai baten sarritan etortzen zen-eta gure herri eta auzoetako erromerietan jotzera. Errekaldekoarentzako ibar berezia da Debagoiena, trikitiarekiko maitasun handia dagoela eta, orokorrean, kulturarekiko estimu handia erakusten duela dio.

Junkerak gurean lagun asko dituela dio: "Bestela ezagutuko ez nukeen jendea ezagutzeko garraibidea izan dut trikitia".

Energia handiko kontzertua

Musika instrumentala nagusi, azken hamabost urteetan konposatutako kantuekin osatuko du gaurko errepertorioa. Kontzertu askea dela dio Junkerak: "Inprobisazio eta sormen une asko ditu. Gidoia ez dago gutziz itxita. Dagoen giroaren edo ikusleengandik jasotzen ditudan sententzioen arabera moldatzen joaten naiz. Kantuen ordena ere kontzertu hasi baino ordu erdi lehena egiten dut. Lekua nolako den ikustea gustatzen zait. Kontzertuan zehar ere aldatzeko ohitura dut".

Etengabeko aldaketa horietara segituan moldatzeko aparteko musikariak dituela dio Junkerak: "Jose Luis Canal pianista ezagutzen dudana musiko kultuarekiko da, musika klasikoan eta jazzean formazioa duena. Edozein estilotara moldagarria den musikaria da". Hainbat diskotan elkarrekin lan egindakoak



Jose Luis Canal, Iñigo Olazabal eta Kepa Junkera izango dira gaur Eskoriatzan. | KEPA JUNKERA

dira. Iñigo Olazabal ere aspaldiko ezaguna du; bere estiloagokoa dela dio: "Formazio autodidaktagokoa da. Sekulako musika abilezia du; alboka, txalaparta, bateria, pandereta, gitarra, baxua... denetik jotzen du".

Bi musikari horiekin *abani-ko* zabala duela dio: "Saiatzen naiz asko dakien jendea inguruan izaten; horrek, batetik, babesa ematen dit, baina, era berean, nire burua gehiago esfortzatzera behartzen nau etengabe bide berriak urratzera bultzatuz".

ESANAK

"Bestela ezagutuko ez nukeen jendea ezagutzeko garraibidea izan da niretako trikitia"

KEPA JUNKERA | MUSIKARIA

Udazkenean disko berria

Musikariaren agendak ez du etenik urte osoan, ezta udan ere; Eskoriatzakoaren biharamunean Kataluniara abiatuko da, esateko. Hiru seme-alaba ditu, baina, eta horregatik, eurekin egon ahal izateko, uztaile eta abuztua lasaigo hartzen saiatzen da. "Gustatzen zait noiz edo noiz nirekin eramatea, euren aitak egiten duena bertatik bertara ikus dezaten eta, era berean, gure kulturak kanpoan duen harrera ere ezagutzeko aukera izan dezaten", esan du.

Une berean fronte asko zabalik izaten dituela aitortzen du; hori horrela, udazkenean kale-ratuko duen diskoaren azkeneko ukituekin ere badabil egunotan. "Galiziarri egin nahi diodan omenaldia da. Txalaparta eta trikitia oinarri hartuta, kantu galegoak batzen ditu. Proiektu erraldoia da, Galiziako 200 musikaritik gora hartu dute parte. Gaur eguneko egoera, ez da orain urte batzuetako besteko ona, baina ahal dudana arte, gustatzen zaidana egiten jarraituko dut".

Musikaz haratago, Junkeraren B Aldea

Busturian, Urdaibain, leku pribilegiatuan gustura bizi dela dio, itsasotik eta menditik gertu. Etxe inguruan dagoenean, aitzurra izaten du sarritan eskuetan, ortuan lana egiteko aprobeztatzen du-eta. Etxeko atea zabalik izaten ditu, sarritan bisitan joaten zaizkion lagunak hartzeko. Orain gutxi Laja eta Landakanda, Junkeraren betiko idoloek bisitatu zuten eta broma antzean kontatu zigun justuan gainditu zuela Landakandak egin zion ortuko azterketa.

Sekula aspertu ez dela dio, asko dira-eta dituen zaletasunak. Horietako batzuk, nola ez, kulturarekin lotutakoak; besteak beste,

museoak bisitatzera joateko ohitura du, eta baita liburuak irakurtzeko ere. Kirolarekin ere asko gozatzen du, bizikleta eta zesta-punta ditu gogokoen.

Askok amesten duten bitzta du Kepa Junkerak eta Kepari zerekin egiten duen amets galdetuta, duen energia positiboa eta indarrak luzaroan iraun diezaiola gurako lukeela dio. Haren ustean, gauza gehiago izateari baino daukagunari etekin handiagoa ateratzea eta mantentzea

da garrantzitsua. Horregatik, bada, musikan urrats berriak ematen temati eta ilusioz jarraituko duela dio, ogibide huts bat baino gehiago duelako.



Junkera, emaztearekin, ortuan lanean.

Unai Azkarate Ilarduiak erakusketa zabalduko du gaur arratsaldean

Bergarako Aroztegi aretoan da; kontzertu akustikoa emango dute, 19:00etan

GUREN AUZMENDI | BERGARA

Erakusketa gaur zabalduko du, uztailaren 19a, Unai Azkaratek, eta abuztuaren 25era arte egongo da zabalik. Bergarako Aroztegi aretoan izango da, eta herriko artistak hiru eratako lanekin osatu du; gehienak azkenengo hiru urteetan egindakoak dira. Bada, zabalteko, kontzertu akustikoa eta luncha izango dira, 18:30ean hasita.

Erakusketan, bergararrak udaberrian, Manchester eta Liverpooletik itzultitakoan, egindako *Rugged* erako margoak erakutsiko ditu. Hondo grisaren gainean arrosa eta hori fosforitoa erabili ditu aurpegiera gogorrak eta inguru aldatuak sortzeko. Musika-munduari egindako keinuak asko dira sail horretan; margo akrilikoa eta aerosola erabili ditu. Kartelak eta itsatsi dizkie gainetik.

Bigarren saila kanpoko margoek osatzen dute, Azkaratek han-hemenka antolatzen diren lehiaketetan sortutakoak. Inguruko herrietako txokoak jasotzen dituzte margo horiek. Artistak berak onartu du era horretako margoekin lan-harremana izaten duela, ogibidea direla. Gero gauza pertsonalagoak sortu ahal izateko. Dena den, Azkarate margoen horrelakoetan hasi zen gaztetxotan eta gustura aritzen da oraindik domeketan, "goiz jaiki behar izaten bada ere".

Erakusketako hirugarren atala eskulturekin prestatu du. Batetik, objektu hibridatuak daude: gitarra-patinetea, Nintendo-gitarra eta gitarra-potea. Horietako batzuk egiteko, Ebert Sanchez gitarra-egilearen laguntza izan du. Bestetik, patinete-aula zaharren gainean musikari ezagunak irudikatu ditu, eta gitarraren kableekin osatu. Objektu horietan guztietan erabilitako osagarriak ageri dira, Azkarate-renak edo jendeak zaborretara botatutakoak.

Inaugurazioa, gaur

Erakusketa 18:30ean zabalduko dute. 19:00etan kontzertu akustikoa izango da aretoan bertan.

Kontzertua Andoni Etxebestek, Jon Zabaletak, Gaizka Azkaratek, Amaia Azpiatzuk eta Unai Azkaratek berak emango dute. Bali-teke, gainera, Azkaratek Nintendo-gitarrari ere eragitea. Hori bukatutakoan, 20:30ean, zerbat

jateko aukera izango dute Kortazar tabernara joaten direnek.

Azkaratek Bergarako erakusketaren ondoren Lasarteko Jalgi tabernan erakutsiko du *Rugged* saila. Horren ostean, lasaitzeko denboraldia hartuko du.



Artista bergararra Aroztegi aretoan. | GUREN AUZMENDI



'BaserriSarea.com', nekazaritza-produktuak ezagutzeko eta erosteko beste aukera bat

Debagoieneko hainbat nekazariren produktuak gainera informazioa ematen du 'BaserriSarea.com' webguneak, eta produktuak erosteko aukera ere bai. Deba Garaia Landa Garapen Elkarteak bultzatu du.

Batez ere Otxia txakolinaren-gatik da ezaguna Bedoña auzoko Artazubiaga baserria. Bertako Felix Etxagibeleg esaten digunez, *BaserriSarea.com*-en parte hartzea erabaki zuten jendeari aukera gehiago emateko.

Zer da zuretzako BaserriSarea.com?

Deba Garaia elkartek antolatutako beste salmenta era bat da. Gaurko moduetara egokitutako sistema bat da. Izan ere, baserriko produktuek bi handicap edo oztupo dituzte: batetik, haietarako bidea ez bazaio jendeari errazten, zailagoa da saltzea; eta, bestetik, kostu handia daukate, artisautza-lanak direlako, guk ez daukagulako esplotazio handirik.

Zuk nekazaritza ekologikoa egiten duzu, ezta?

Bai; baratzea eta mahastiak modu ekologikoan lantzen ditugu. Eta horrek ere beste kostu bat dakar, ingurumena zaintzearena. Horko tresnak, denbora, indarra... ere kostu bat dira.



“ Salmenta-aukera guztietan egon behar dugula uste dut; eta, apurka-apurka, BaserriSarea.com-en bidez ere bagabiltza gure txakolina saltzen ”

Zer saltzen duzu BaserriSarea.com-en bitartez?

Txakolina bakarrik saltzea erabaki genuen, luzaroz irauten duen produktua delako eta ardoa erraz egokitzen delako Interneteko salmentara. Azken baten, bezeroari beste aukera bat eman gura genion; salmenta aukera guztietan egon behar dugula uste dut. Eta, gutxi bada ere, apurka-apurka badabil saltzen.

Uste dut denborari aurrea hartzen gabiltzala, oraindik jendeak ez daukalako Internetez erosteko halako ohitura. Askotan esaten da

Internetez saldu behar dela, baina, oraingoz, batik bat hotelak eta bidaia turistikoak saltzen dira gehien Internetez; kosmetikako produktuak ere badabiltza bolumena hartzen; baina jan-edanak ez hainbeste, guk geuk ikusi gura ditugulako; erosketa-keinu hori egin gura izaten dugu oraindik.

BaserriSarea.com-en egoteaz gain, zuek ere baduzue www.artazubiaga.es webgunea.

Bai, halaxe da. Bada urte pare bat gure webgunea egitea era-

baki genuela. Batez ere, jendeak ikus dezan eta gure berri izan dezan balio du gure webguneak; hortik ez dugu salmentarik egiten.

Produktu gehiago ere saltzen dituzue...

Bai. Baratzeke gauzak, amak egiten duen ogia eta, sasoiaren, txorizoa eta odolostea; horiek plazan saltzen ditugu. Txakolina, berriz, ez dugu plazara erosten; inguruko tabernen eta denden bidez saltzen dugu.

ESANAK

"Familiari eskerrak eman behar dizkiot lokalagatik"

"Ni sortzaile kaotikoa naiz, erabat; lokala traste zaharrez beteta daukat"

baserrisarea.com
Debagoieneko landa eremuaren erakusleioa

- :: Gure ekoizleen produktuak baserrietik etxera
- :: Landa bizitza eta ondare historikoa
- :: Gure interesgarriak eta ibilbide naturalak
- :: ...eta askoz gehiago!

Debagoiena BASERRI SAREA Auzoan Zurekin

'4x4': hip-hop eta breakdance dantzen erakustaldia Arrasaten

Chimid Badmaev, Pedro Alfonso Vilas, Sergio Nguema eta Thiago Luiz Almeida dira dantzariak

A. ARANBURUZABALA | ARRASATE
4x4 ikuskizuna da Ertza dantza taldearen azkena. Lau dantzari gazte egindako hip-hop eta breakdance dantzen erakustaldi intentsu eta ikusgarria da; Arrasateko Herriko Plazan egingo dute gaur, egubakoitza, 20:00etan.

Oilar-borrokak irudikatuz

Dantza garaikidea da Ertza taldearen esparrua; horregatik, bada, kanpora jo zuten lan honetarako espresuki dantzariak bilatzera. Otsailean egin zituzten probetan, onenak zirela ederto erakutsi zuten Euskal Herrian orain dela sei urte bizi diren Chimid Badmaev errusiarrak, Errepublikari Dominikar Pedro Alfonso Vilasek, Thiago Luiz Almeida brasildarrak eta Donostiako Sergio Nguemak. "Oso gazteak dira, 21 urte besterik ez dute; hala ere, ikaragarria da duten gaitasuna, sekulako indarra eta malgutasuna dute", dio Asier Zabaletak, koreografoak eta lanaren zuzendariak.

Garaikidearen ikuspegitik abiatuta osatu zuen Zabaletak ikuskizunaren gidioa: "Dantzan egiteko motorra euren arteko borrokan datza, euren artean sortzen diren dantza-gatazketan oinarritu naiz koreografia osatzeko orduan. Oilar-borrokak irudikatuz, hasieran lauren artean sortzen dute dantza-gatazka, bi taldetan banatzen dira gero, eta laurak elkarrekin egindako dantza-borrokekin borobiltzen dute ondoren saioa".

20 minutuko iraupena

Lan freskoa, zuzena eta edonoren begietatik bat-batean eta samur sartzen dela dio Zabaletak. Musika gainera, ez dute beste osagirik erabiltzen.

Ikuskizuna hasi orduko harapatzen dute ikusleen arreta. Musika elektronikoak markatutako erritmo bizian 20 minutuko saio intentsua egiten dute. "Zaila da iraupen luzeagokoa egitea, leher eginda amaitzen dute, dena ema-



Ertza taldeak sortutako 4x4 dantza ikuskizuna. | ERTZA

ten dute lehenengo minututik. Aurrez beroketa lanak egiten dituzte. Kaleko dantzak diren arren, entsegu gogorak egiten dituzte; alderantzizkoa dirudien arren, estudio lan handia dago atzean", dio zuzendariak.

Publiko zabalarentzako da, Zabaletaren esanetan, ikuskizun

gomendagarria: "Ulertzeko erraza da, bizia eta azkarra. Orain artean egin ditugun emanaldiek oso harrera ona izan dute; bereziki, haur edo gazteak dira gehien harritzen direnak. Saioa bukatuta, segituan hurbiltzen dira dantzariengana, sinadurak eskatu edo aholkuak eskatzera".

Umore Azokan saria

Maiatzean estreinatu zuten, Leioako Umore Azokan, eta Euskadiko sari onena irabazi zuten han. Harrezkero erakutsi duten bakoi-tzean berretsi dute arrakasta. "Oso pozik gaude, agenda beteta dugu; Arrasateko Poloniara goaz", diote Ertzatik.



Eddie 'La Mano Cornuda' Spaghetti borrokarako prest. | BLOODSHOT RECORDS

Eddie Spaghetti, Taupa tabernan, datorren eguaztenean, hilaren 24an

JAGOBA DOMINGO | ARRASATE
Supersuckers taldeko abeslaria bakarlarari moduan duen proiektuarekin gurera etorriko da hilaren 24an, eguaztenean: Arrasateko Taupa tabernara. Tucsonen jaiotakoa, aski ezaguna da munduan zehar: 1988an hasi zuen ibilbidea Supersuckers punk-rock taldearekin, eta ordu-tik ez du denborarik galdu.

Oraingoan, baina, bakarlarari moduan duen proiektuarekin dator. Taupako terraza ederto girotuko du, punk-rock, country eta honky-tonk doinuekin; eta musikan adituek dioten moduan: "Johnny Cash bizirik balego, seguruenik, Spaghattiren disko hau erosiko luke".

The Value of Nothing

Duela hilabete argitaratu zuen *The Value of Nothing* diskoa. Eddie Spaghetti *alter-ego*-aren izenpean kaleratu duen laugarren lana da, eta kantu propioz osaturiko lehena.

AEBe aldez alde ibiltzen duten *Road-trip* filmen soinu banda ezin hobea osatzen duen hamar kantuko bilduma grabatu du oraingoan. Hala ere, aurreko diskoetako klasikoak ez dira falta izango eguaztenean. Besteak beste, Johnny Cashek famatu egin zuen *Cocaine Blues*, *Peace in the Valley* eta *Sleepy Vampire*. Munduko rock-and-roll talde handieneko abeslaria, beraz, gurera etorriko da.

Hegoafrikan egindako musika bertatik bertara entzuteko aukera bikoitza Oñatin

Touchwood-en doinu goxoak gaur eta BCUCren hip-hopa eguaztenean

A. A. | OÑATI

Hegoafrikako Touchwood taldearekin abiatuko dute gaur, egubakoitza, kultura kalera ateratzea helburu duen eta Gazteria Sailak antolatutako *Kalean* egitasmoa.

Lurmutur Hiritik datorren musika taldeak gipsy-afro-folk estiloko doinuak erakutsiko ditu San Anton plazako agertokian, 19:30ean.

Gipsy-afro-folk estiloa gaur

Ibilbide laburra badu ere, dagoneko sona handia lortu du musika kritikariaren esanetan etorkizun oparoa duen taldeak. Horren erakusle da Afrikako musika eta kultura ezagutarazteko asmoz sortutako *Johannesburgo Vis a Vis* lehiaketan iazko irabazleeta-ko bat izan zela. Sari moduan udako askotariko jaialdietan jotzeko txartela lortu zuten. Europako hainbat herrialdetan egiten ari diren bira aprobetxatuta, bada, Oñatin geldialdia egitea lortu dute *Kalean* programako arduradunek.

Hiru neskek eta mutil batek osatzen dute gipsy-afro-folk estiloan kokatutako laukotea. Sortzen dituzten harmonia goxoak eta soinu akustikoak dira, adituen



Oñatin gaur izango den Touchwood taldeko hiru kide. | OÑATIKO GAZTELEKUA

esanetan, taldearen ikur. Aipagarriak dira, era berean, taularen gainean erabiltzen dituzten askotariko musika tresnak: biolinak, ukelelea, txeloa, gitarra, marimbak eta bateria, besteak beste.

Gaurkoaz gainera, Hegoafrikako musikaz gozatzeko beste aukera bat izango da uztailaren 24an agertoki berean; Sowetoko BCUC taldearen hip-hop afrikarra izango da protagonista.

GUREN AUZMENDI | ARRASATE

Los Galerna talde arrasatearreko kideek *Akelarre* hirugarren lana laster argitaratuko dute. Ez edozein modutara, Mexikon egingo dituzte lehenengo kontzertuak. Abuztuan joango dira herrialde hartara; hiriburuan eta Chiapasen emango dituzte kontzertuak.

Espainian lehenago ere ibili dira kontzertuak ematen, baina hain urruti emanaldiak jotzeko aukera izatea beste gauza bat da. Ez baita ahuntzaren gauerdiko eztula Los Galerna bezalako taldeentzat Mexikon jotzea. Han euren musika motak indarra duelako; surf taldeen estetika eta gaia handik dator, neurri handian: hildakoen egunak, borroka libre, b serieko film baldarrak...

Hara joateko gogo aspalditik zuten *galernakideek*. Baina taldekide bat han izan zen lan-kontuengatik eta kontzertuetan-eta izan zen. Areto horietan ezagututako jendeari esker, poliki-poliki, kontzertuak lortu dituzten arte. Abuztuaren 8an izango dute lehenengo, hiriburuan bertan, eta beste hiru ere hantxe emango dituzte. Bat, gainera, Foro Alicia aretoan izango da; musika mexikar alternatiboaren erreferentzia da. Gero, Chiapas estatura joko dute beste sei emanaldi egingo dituzte han.

Taldekideak gogoz dabilta bira prestatzen; 35 kantu gertatu dituzte kontzertu ezberdinak eman ahal izateko. Chiapasen, esaterako, egunean bi emango dituzte.

Los Galernakoak Mexikora doaz disko berria aurkeztera

Boskote arrasatearrak hiriburuan eta Chiapasen emango ditu kontzertuak



Los Galerna Arrasateko musika taldeko bidelapurak. | LOS GALERNA

Nabarmenezkoa da Mexikon kontzertuak ezberdinak izaten direla: talde askok jotzen dute bata bestearren atzetik. Emanaldiak motzagoak dira eta arrasatearrek badute hori ezaguzeko irrika. Gero, hona itzulitakoan, Arrasateko Taupa tabernan hasi, eta

aurkezpen-bira bati ekingo diote, ahal bezain laster.

Soinua, garatuagoa

Hirugarren lan honetan, Los Galernakoek soinuan garapen nabarmena izan dute. Aurreko diskoetako musikatik hasi eta

eremu ezberdinetarantz jo dute arrasatearrek. Surf doinuak dira, baina kantuz kantu beste estilo batzuetara ihes-inolako lotsarik gabe-egin dute oraingoan. Purutasunetik urrunduta eroso sentitu dira: swing doinuak aurretik momentuko lizentziak baziren,

FITXA



LOS GALERNA
AKELARRE
Estiloa: Surfa.
Herria eta urtea: Arrasate, 2013.
Diskoetxea: Gaztelupeko Hotsak.
Abesti kopurua: 10.

abesti osoak dira orain *Akelarre* lanean. Badira punkera egiten duten kantuak, eta baita ukitu latindarra dutenak ere.

Ibai Akizuk eta bere saxoak duten garrantzia ere berehala nabaritu du disko berria entzuten duenak. Aurreko lanean lehendabiziko aldiz sartu zuten abestietan, kantuak janzteko. Oraingoan, ordea, hasieratik izan da Akizu abestiari egiten. Horregatik, protagonismo handia lortu du hainbatetan.

Grabazioan ere jauzia egin dute. Izan ere, aurreko lanak Aretxabaletako Jon Rodriguezekin egin zituzten, eroso, "etxean bezala". Oraingoan, estudio profesional batera jo dute: Beasaingo Pottokara, hain zuzen ere. Emaitzarekin oso gustura gelditu dira eta ekoizpenean eman dieten laguntza eskertu egin dute taldekideek.



AUKERAZKO IBILGAILUAK SALGAI



> **DACIA SANDERO**
• 2012
• Gasolina
• 3.560 Km
• Grisa



8.850 €



RENAULT AUTOBERRI

San Andres auzoa 8 • ARRASATE • 943 71 24 72

• Renault Kangoo	10.800 €
2011 Diesela 19.340 Km Txuria	
• Renault Kangoo Furgioa	7.500 €
2011 Diesela 107.000 Km Txuria	
• Renault Trafic Furgioa	8.950 €
2008 Diesela 91.000 Km Txuria	
• Renault Master Furgioa	8.500 €
2008 Diesela 137.855 Km Txuria	
• Renault Megane Sport Tourer	14.850 €
2011 Diesela 11.037 Km Beige	
• Renault Clio	9.250 €
2010 Diesela 23.856 Km Urdina	
• Renault Clio Grand Tour	11.850 €
2012 Diesela 17.155 Km grisa	
• Renault Twingo	8.450 €
2011 Diesela 9.654 Km Beltza	



28.500 €

> **Citröen | C4 Aircross 1.8 HDI Exclusive 2WD 150**

2012 | Diesela | 1.000 Km | Marroi iluna

CHAPIME



San Andres auzoa 5 • ARRASATE • 943 79 45 22

• Citroen C3 1.6e-Hdi Exclusive 90	15.500 €
2013 Diesela 750 km Gorri argia	
• Citroen C4 G.Picasso 1.6hdi CMP Millenium	18.000 €
2012 Diesela 26.238 km Grisa	
• Citroen C4 G.Picasso 1.6HDI CMP Millenium	18.000 €
2012 Diesela 29.782 km Beltza	
• Citroen C4 G.Picasso 1.6HDI Exclusive	21.500 €
2013 Diesela 1.200 km Gris iluna	
• Citroen C-Elysée 1.6Hdi Exclusive 90	14.000 €
2012 Diesela 5.500 km Urdin argia	
• Citroen DS3 1.6e-HDI Style	17.500 €
2013 Diesela 25 km Gris iluna	
• Citroen DS5 Hybrid4 Airdream Sport CMP	35.000 €
2012 Diesela eta elektrikoa 13.000 Txuria	
• Peugeot Partner 1.6HDI Tepee Access 92	13.000 €
2012 Diesela 27.165 km Gris argia	
• Peugeot 508 Hdi ACTIVE 140 ZP	20.000 €
2011 Diesela 9.000 km Gris argia	
• Ford FT Tourneo 200 S Connect 75	4.500 €
2005 Diesela 129.456 km Txuria	



Mondra-Reala

Mojategin 2013ko uztailaren 12an, Mondraren 100. urteurrenean

goienakluba
Euskara irabazle, denok irabazle!



omu Zeramikak
Bainuak
Tximiniak
Eraikuntzarako
materiala

Zorionak, Mondra!

Maitzenak 6 - Arrasate
943 79 14 29
www.omuzeramikak.com

merkecartuchos *Aurrera, Mondra!*

TONER ETA TINTA KARTUTXOEN ERREKARGA ETA SALMENTA

Loramendi 2 - Arrasate
943 79 99 31 - arrasate@merkecartuchos.net

MONDRAREN 100. URTEURRENA
Goiena Klubeko bazkideendako

Mondra-Reala posterra opari

Uztailaren 22an, astelehena, Goiena paperarekin batera. Bazkide ez bazara, erosi kioskoan 1,10 euroren truke!



GOIENA KLUBEKO ABANTAILA GEHIAGO:

Goiena papera:

Astelehenetan ere etxean jasoko duzu asteburuko informazio guztiarekin.

Deskontuak:

Goienan jartzen duzun iragarki sailkatu eta eskela guztietan.

Urteko kuota: 50 €. | 943 25 05 05 | kluba@goiena.com | goienakluba.com



goienakluba
Euskara irabazle, denok irabazle!

ASTEAGOIENAN



Ukrainatik Oñatira uda pasatzera

11 urteko neskatila da Yula Krekoten. Ukrainako Gorenka herri-tik etorri da Oñatiko familia batekin uda pasatzera, beste urte batez, eta hemengo egunerokoa nola bizi duen ikusi ahal izango dugu gaurko AsteOn saioko erreportajearen.

'AsteOn'
Egubakoitza, 22:01



Antzuolako jaiak Goiena telebistan

Atzo, eguena, hasi ziren Antzuolako jaiak eta ordutik domekara bitartean ematen dutena jasoko dugu astlehenean *Magazinea* saioan. Imanol Gallego kazetaria ibiliko da Antzuolako kaleetan eta Txomin Madinarekin batera ikusiko dugu saioan.

'Magazinea'
Astlehena, 20:15

GOIENA TELEBISTA

EGUBAKOITZA, 19	ZAPATUA, 20	DOMEKA, 21	ASTELEHENA, 22	MARTITZENA, 23	EGUAZTENA, 24	EGUENA, 25
12:00 Planik bai?	10:00 28.Klip	10:00 Magazinea	12:00 Magazinea	12:00 Magazinea	12:00 Magazinea	12:00 Magazinea
12:20 Magazinea	10:30 Mondrak 100 urte	11:00 Zorion Agurrak	13:00 Udakoak	12:45 Segaligaxka	12:45 Erreportajea	12:50 Ikusten
13:05 Gurean gaur	11:05 Magazinea	11:05 Huhezinema	13:40 Pedalka	13:15 Harmailatik	13:28 Harmailatik	13:32 Onein
13:27 Huhezinema	12:05 Ikusmira	11:35 Onein	14:10 AsteON	14:00 Erreportajea	14:13 Pedalka	13:56 Erreportajea
13:58 Pedalka	12:17 Klaketa	11:55 Road to Memphis	14:40 Zorion Agurrak	14:43 Zorion Agurrak	14:41 Zorion Agurrak	14:39 Zorion Agurrak
14:26 Planik bai?	12:58 Onein	12:50 Sahatsa dantza taldea	14:45 Berriak	14:45 Berriak	14:45 Berriak	14:45 Berriak
14:45 Berriak	13:35 Berriak	14:05 Onein	15:10 Eguraldia	15:10 Eguraldia	15:10 Eguraldia	15:10 Eguraldia
15:10 Eguraldia	13:50 AsteON	14:37 Magazinea	15:18 Zorion Agurrak	15:13 Harmailatik	15:13 Klaketa	15:13 Huhezinema
15:13 AZK2012	14:20 Magazinea	15:37 AsteON	15:23 AZK2012	15:58 Onein	15:54 Onein	15:43 Sahatsa dantza taldea
15:43 Ikusten	15:20 Zorion Agurrak	16:07 Zorion Agurrak	16:23 Pedalka	16:20 AsteON	16:14 Harmailatik	16:58 Zorion Agurrak
15:57 Eguzki bila	15:25 Onein	16:12 Ikusmira I	16:53 Zorion Agurrak	16:55 Zorion Agurrak	16:59 Zorion Agurrak	17:03 Berriak
16:30 Zorion Agurrak	15:47 Pedalka	16:24 Pedalka	17:00 Berriak	17:00 Berriak	17:04 Berriak	17:28 Eguraldia
16:36 Planik bai?	16:07 Huhezinema	16:54 Planik bai?	17:30 Eguraldia	17:25 Eguraldia	17:04 Berriak	17:31 Onein
17:00 Berriak	16:37 Ikusten	17:14 Mondrak 100 urte	17:33 Onein	17:58 Ikusmira	17:29 Eguraldia	17:56 Planik bai?
17:25 Eguraldia	17:20 Onein	17:49 Klaketa	18:10 Zorion Agurrak	18:10 Zorion Agurrak	17:32 Huhezinema	18:16 Huhezinema
17:28 Udakoak	17:52 Zorion Agurrak	18:30 Erreportajea	18:15 Udakoak	18:15 Udakoak	18:05 Ikusmira	18:46 Klaketa
18:08 Aho bizarririk gabe	17:57 Road to Memphis	19:13 Magazinea	18:55 Erreportajea	19:40 Zorion Agurrak	19:02 Ikusten	19:16 Zorion Agurrak
18:48 Planik bai?	18:52 Sahatsa dantza taldea	20:13 Berriak	19:40 Zorion Agurrak	19:45 Berriak	19:45 Zorion Agurrak	19:22 Planik bai?
19:08 Berriak	20:07 Magazinea	20:28 Zorion Agurrak	19:47 Berriak	20:10 Eguraldia	19:50 Berriak	19:47 Zorion Agurrak
19:38 Eguraldia	21:07 Planik bai?	20:33 Mondrak 100 urte	20:12 Eguraldia	20:15 Magazinea	20:10 Eguraldia	19:53 Berriak
19:43 Gurean gaur	21:27 Berriak	21:08 AsteON	20:15 Magazinea	21:00 Gurean gaur	20:15 Magazinea	20:13 Eguraldia
20:13 Planik bai?	21:42 AsteON	21:38 Magazinea	21:00 Gurean gaur	21:30 Huhezinema	21:04 Gurean gaur	20:15 Magazinea
20:38 Zorion Agurrak	22:12 Berriak	22:38 Road to Memphis	21:30 Berriak	22:00 Berriak	21:34 AsteON	21:00 Gurean gaur
20:43 Berriak	22:27 Pedalka	23:33 AZK2012	21:54 Eguraldia	22:25 Eguraldia	22:04 Berriak	21:30 Pedalka
21:08 Eguraldia	22:57 Aho bizarririk gabe	00:09 Berriak	21:56 Harmailatik	22:30 Magazinea	22:29 Eguraldia	22:00 Planik bai?
21:11 Gurean gaur	23:24 Magazinea	00:26 Eguraldia	22:41 Ikusten	23:15 Klaketa	22:31 Magazinea	22:20 Berriak
21:41 Ikusmira	23:37 Magazinea	00:21 Eguraldia	23:24 Magazinea	23:56 Berriak	23:16 Harmailatik	22:45 Eguraldia
22:01 AsteON			00:21 Eguraldia	00:01 Berriak	00:14 Berriak	22:48 Magazinea
22:41 Kontzertua: Requiem				00:26 Eguraldia	00:39 Eguraldia	23:33 Klaketa
22:41 Road to Memphis				00:29 Magazinea		00:10 Eguraldia
23:36 Planik bai?						
23:51 Planik bai?						
23:56 Berriak						

ARRASATE IRRATIA

Elkarrizketak entzun ahal izango dituzue zapatu eta domekan

Asteko gainbegiratu egingo dugu asteburuan, 10:00-etan. Bertan entzun ahal izango duzue udako oporren aurretik baserritarren azokari buruz Marga Garmendiari egindako elkarrizketa, eta Mondrako zuzendaritza batzordearen balorazioa ere entzun ahal izango duzue saioan.

'Atlantika' izeneko jokoak zozketatuko dugu datorren astean

Datorren asteko zozketan *Atlantika* jokoak banatuko dugu. Joko hori 8 urtetik gorako gazteendako da, eta, saria irabazi nahi baduzu, hartu parte zozketan. 943 25 05 05 telefonora deituta edo irratia@goiena.com helbidera idatzita har dezakezu parte zozketan. Zorte on!



Jone eta Arkaitz

Jone Etxaniz ondarrutarra eta Arkaitz Gimbert bergararra bihar ezkonduko dira Bergarako Udaletxean. "Zorionak lagunen partetik! Heldu da eguna eta zuekin disfrutatzeko desiratzen gaude! Ondo ibili Mexikon eta, badakizue, bi joan eta hiru etorri! Musu asko!".



Iñaki eta Maria Angeles

Iñaki Mugika eta Maria Angeles Urribesalgo arrasatearrek datorren eguaztenean, uztailak 24, ospatuko dituzte urrezko ezteiak. "Zuekin egun hau ospatzeko desiratzen gaude denok. Musu potolo bat etxekoan partetik".



Marijo eta Ronald

"Azkenean, iritsi da eguna! Marijo eta Ronald uztailaren 20an ezkonduko dira San Juaneko ermitan eta elkarrekin ospatzeko desiratzen gaude! Ondo-ondo pasatu, bikote, eta zoriontsu izaten jarraitu. Zuen familia, lagun, kuadrirangiko kide eta bikoteak".



Iban eta Sunahi

Iban Villar eta Sunahi Etxebarria zapatu honetan, uztailaren 20an, Aretxabaletako Izurieta auzoko elizan ezkonduko dira. "Zorionak, bikote! Zuen iloba Izaro eta etxekoan partetik, oso zoriontsu izan zaitzela!".



Oliver eta Veronica

Oliver Diosdado eta Veronica Fernandez arrasatearrek zapatuan ezkonduko dira Arrasateko Udaletxean. Eztei-bidaian AEBetara eta Mexikora joango dira. Familiaren partetik, ondo ibili eta zorionak!

OROIGARRIA

**Igor
Lete Aranburu**

Bergaran hil zen 2008ko uztailaren 22an, 24 urte zituela.

*Zu bezalako izarrak
ez dira inoiz itzaltzen.*

Maite zaitugu.

Zure familia.
Bergaran, 2013ko uztailaren 19an.

OROIGARRIA

**Milagros
Beitia Izurategi**

2013ko uztailaren 11n hil zen.

*Laino guztien petik
sasi guztien gainetik
ardu laurden bat haruntza,
beste bat honuntza.
Ez garela, bagarela
hamalau mila hemen garela.*Mila esker, Milagros! Sorginak Gatzagako emakume taldea.
Leintz Gatzagan, 2013ko uztailaren 19an.

OROIGARRIA

**M. Asuncion
Leturiondo Kortabarria**

Iñaki Urreta lankidearen ama

2013ko uztailaren 14an hil zen, 84 urte zituela.

Bat egiten dugu
senideen saminarekin.Kurtzebarri BHI.
Aretxabaletan, 2013ko uztailaren 19an.

ESKER ONA

**Txaro
Etxabe Otaduy**

Donostian hil zen 2013ko uztailaren 13an, 60 urte zituela.

Une samin hauetan Txaro gogoan izan duten guztiak eskertzen ditu sendiak.

*Txaro, agur.
Maiteko zaitugu, aurrerantzean ere.*

Arrasaten, 2013ko uztailaren 19an.

ESKER ONA

**Cristina
Ibarguren Unanue**

Bergaran hil zen 2013ko uztailaren 11n, 94 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenizkiguteno, eskerrik asko sendikoen izenean.

*Urak dakarrena urak daroa,
zuk emandakoa gurekin gelditzen da.*

Bergaran, 2013ko uztailaren 19an.

ESKER ONA

**M. Angeles
Ortuzar Irizar**

Oñatin hil zen 2013ko uztailaren 8an.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenizkiguteno, eskerrik asko sendikoen izenean.

Haren aldeko ondrea meza zapatuan izango da, uztailaren 20an, 19:30ean, Oñatiko agustindarren elizan.

Bertaratuko zaretenoi, aurrez esker on.
Oñatin, 2013ko uztailaren 19an.

HILDAKOAK

Daniel Baltanaz Garcia

Arrasaten, uztailaren 3an. 84 urte.

Jose Ignacio Hernando Urrecho

Arrasaten, uztailaren 4an. 60 urte.

Roberto Linkel Lazkano

Oñatin, uztailaren 5ean. 76 urte.

Marcelino Ugarte Ugarte

Arrasaten, uztailaren 6an. 92 urte.

Pako Labaka Uranga

Bergaran, uztailaren 7an. 85 urte.

M. Angeles Ortuzar Irizar

Arrasaten, uztailaren 8an. 88 urte.

Alberto Sanchez Nogales

Arrasaten, uztailaren 9an. 78 urte.

Dolores Zumelaga Ajuria

Bergaran, uztailaren 11n. 85 urte.

Cristina Ibarguren Unanue

Bergaran, uztailaren 11n. 94 urte.

Milagros Beitia Izurategi

Leintz Gatzagan, uztailaren 11n.

Jose Luis Urbina Lagos

Bergaran, uztailaren 11n. 84 urte.

Txaro Etxabe Otaduy

Donostian, uztailaren 13an. 60 urte.

Luis Izagirre Belategi

Elgetan, uztailaren 14an. 89 urte.

M. Jesus Legorburu Saez de Maturana

Aretxabaletan, hileren 14an. 56 urte.

M. Asuncion Leturiondo Kortabarria

Aretxabaletan, uztailaren 14an. 84 urte.

M. Arantzazu Telleria Iriondo

Arrasaten, uztailaren 15ean. 70 urte.

Urbelina Perez Prieto

Aretxabaletan, uztailaren 17an. 95 urte.

Juana Elkororibe Odriozola

Bergaran, uztailaren 17an. 81 urte.

URTEURRENA

**Nati
Zabaleta Kortabarria**

Oñatin hil zen 2012ko uztailaren 17an.

Lehen urteurreneko meza
zapatuan izango da, uztailaren 20an, 19:00etan,
Oñatiko Mikel Goiaingeruaren parrokan.Elizkizunetara joango zaretenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.
Oñatin, 2013ko uztailaren 19an.

URTEURRENA

**Puri
Urizar Villar**

2012ko uztailaren 15ean hil zen, 51 urte zituela.

Lehen urteurreneko meza
zapatuan izango da, uztailaren 20an, 19:00etan,
Oñatiko Mikel Goiaingeruaren parrokan.Aurrez esker on, familiaren izenean, bertaratzen zareten guztioi.
Oñatin, 2013ko uztailaren 19an.

URTEURRENA

**Rafael
Ayastuy Guridi**

Oñatin hil zen 2012ko uztailaren 22an, 46 urte zituela.

Lehen urteurreneko meza zapatuan izango da,
uztailaren 20an, 19:00etan, Oñatiko Mikel Goiaingeruaren parrokan.*Nere seme maitea, lagunen lagun,
izar izpi bat bezala joan zinen,
agurrik esan gabe baina gureartetik
atera gabe. Laister arte.*Elizkizunetara joango zaretenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.
Oñatin, 2013ko uztailaren 19an.

URTEURRENA

**Pantxika
Igartua Arruti**

2012ko uztailaren 5ean, 98 urte zituela.

Lehen urteurreneko meza
domekan izango da, uztailaren 21ean, 12:00etan,
Bergarako Santa Marina parrokan.Elizkizunetara joango zaretenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.
Bergaran, 2013ko uztailaren 19an.

URTEURRENA

**Jesus
Rodriguez Martiño**

2012ko uztailaren 17an hil zen, 66 urte zituela.

Lehen urteurreneko meza
domekan izango da, uztailaren 21ean, 12:00etan,
Bergarako Santa Marina parrokan.Elizkizunetara joango zaretenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.
Bergaran, 2013ko uztailaren 19an.

URTEURRENA

**Marzelina Ruiz de Azua
Kortabarria**

Gregorio Arrizabalagaren alarguna

2012ko uztailaren 2an hil zen, 94 urte zituela.

Lehen urteurreneko meza domekan izango da,
uztailaren 21ean, 12:00etan, Aramaioko Aixola auzoko Santa Marina elizan.*Beti izango zara gure bihotzetan.*Elizkizunetara joango zaretenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.
Aramaion, 2013ko uztailaren 19an.**Miriam eta Xabier**

Miriam Meier eta Xabier Alzelai bihar, uztailak 20, ezkonduko dira Kolonian (Alemania). "Hantxe egongo gara. Ondo pasatzeko desiratzen gaude. Har ezazue besarkada handi bat familiakoen eta lagunen partetik".

**Elisabeth eta Tomas**

Elisabeth Gallastegik eta Tomas Rodriguezek zilarrezko ezteiak beteko dituzte uztailaren 24an. Familiarekin eta lagunekin zapatuan ospatuko dute jai giro ederrean. "Zorionak, etxekoen partetik, jarrai ezazue beste 25 urte elkar maitatzen eta zoriontsu izaten. Askok maite zaituztegu".

MUSIKA

ARRASATE Arkada Social

Arkada Social taldeak kontzertua eskainiko du Dat tabernan. Arrasateko talde ezagunak punk-oi doinuak eskainiko ditu. Gaur, egubakoitza, Dat tabernan 19:00etan.

ARAMAIO Arrasate Musikal

Kontzertu hori kantuko ikasleek emango dute Aramaioko San Martin parrokiaren, doan. Gaur, egubakoitza, San Martin parrokiaren 19:00etan.

OÑATI Touchwood

Afro-gypsy-folk musika egiten du Hegoafrikako Touchwood taldeak. Hiru neska eta mutil bat dira taldekideak. Kalendar 2013 egitarauaren barruan. Gaur, egubakoitza, San Anton plazan 19:30etan.

BERGARA Edu Manzanas Project

Madrid-Frantziako taldeak kontzertua eskainiko du, Berumuga zirkloaren barruan. Edu Manzanas kantari eta gitarra joleak indarrak batu ditu Fred PG musikari frantziarrarekin. Bluesa eskainiko dute. Gaur, egubakoitza, Espoloiaren 22:00etan.

NON-ZER

Emaguzue zuen ekitaldien berri eguazteneko eguerdia baino lehen.
Tel.: 943 25 05 05 | kultura@goiena.com | Faxa: 943 25 05 00



IMANOL SORIANO

OÑATI Azabatxe proiektua, Ebert Sanchezekin

Ebert Sanchez musikari venezuelarraren proiektu berria da Azabatxe. Arrasaten bizi den artistak instrumentuak jotzen duen abilezia eta abesterakoan jartzen duen sentimendua benetan bereziak dira. Blues, rock eta soinu latindarrak. Etzi, domeka, Pako tabernan 19:30etan.

UZTAILAK 19
UZTAILAK 25**ANTZUOLA Kasik eta Joxpa**

Kasik eta Joxpa musika taldeen emanaldia, doan. Gaur, egubakoitza, Txosnagunean 22:30etan.

ANTZUOLA Elektrotzaranga

Eonian elektrotzaranga txosnatan. Bihar, zapatua, Txosnagunean 21:00etan.

ESKORIATZA Errekan Gora

Eñaut Zubizarreta txelo-jotzaile aretxabaletarrak joko du, Oñatiko Ganbara abesbatzarekin. Bihar, zapatua, Unibertsitateko klaustroan 22:30etan.

ANTZUOLA Kontzertuak

Ezinean, Egurra ta Kitto eta DJ Jotatxo. Goizeko ordu txikietan, txorizo-ogitarakoak. Bihar, zapatua, Txosnagunean 23:00etan.

OÑATI Imuntzo eta Beloki

Madalena jaietan Imuntzo eta Belokik dantzan jarriko dituzte auzotarrak. Bihar, zapatua, Santxolopeztegin 23:00etan.

BERGARA Udal Musika Banda

Udal Musika Bandak kalejira egingo du herriko kaleetan eta kontzertua (12:30) eskainiko du Udal Pilotalekuan. Etzi, domeka, herriko kaleetan 11:00etan.

OÑATI Jam session

Antixena parkean izango da *jam session*-a. Doan. Etzi, domeka, Antixena parkean 20:30etan.

OÑATI Hip-hop musika BCUCrekin

Sowwtoko BCUC seikotea. Gaztelekuak antolatu duen Kalendar 2013 egitarauaren barruan. Uztailaren 24a, eguaztena, San Anton plazan 22:00etan.

ANTZERKIA

BERGARA Bapatean Zirkoa

Pon ta Pa antzezlanaren eskainiko du Bapatean Zirkoa taldeak. Gaur, egubakoitza, Munibe plazan 11:00etan.

BERGARA Gezurtiak

Trapu Zaharrak taldeak *Gezurtiak* lana eskainiko du. Gaur, egubakoitza, San Martin plazan 20:00etan.

OÑATI Iñaki Mata

Iñaki Mata aktore eta titiritero antzuolarrak *H, O2TOPOZ* izeneko ikuskizuna egingo du, gurpil aulkia lagun duela. Uztailaren 24a, eguaztena, Foruen plazan 20:00etan.

IKUSKIZUNAK

OÑATI Potx eta Motx

Irrien bila ikuskizuna eskainiko dute Potx eta Motx pailazoek. Bihar, zapatua, Santxolopeztegin 17:00etan.

OÑATI Teatrakalakalle

Hiru aktore eta hiru musikaririk osaturiko kale animazioa. Esku-joko, hankaluze eta abarrekin egingo dute kalejira. 22:30etan, su ikuskizuna, herriko plazan. Kalendar 2013 egitarauaren barruan. Gaur, egubakoitza, Herriko kaleetan 21:00etan.

DANTZA

ARRASATE '4x4' ikuskizuna

4x4 dantza ikuskizuna Ertza taldearen eskutik. Oilar borroka izango da: bi bikote elkarri moko-ka; 4 elementu edozertarako prest; zortzi zulo begietatik at; 16 gihar lehertu beharrean. Gaur, egubakoitza, Herriko Plazan 20:00etan.

ARRASATE Folklore jaialdia

Beningo Les As du Benin taldeak dantza saioa eskainiko du. Uztailaren 23a, martitzena, Monterron parkean 22:30etan.

JAIK

OÑATI Madalenako jaiak

Egubakoitzetik domekara bitartean Madalena jaiak ospatuko dituzte Santxolopeztegi auzoan. Aste bukaeran, Santxolopeztegi auzoan.

ESKORIATZA Madalenak Marinen

Madalena jaiak ospatuko dituzte Marinen. Domekan meza nagusia eta ondoren mokadutxo hartzeko aukera izango da. Etzi, domeka, Marinen 12:00etan.

ARETXABALETA Portasolgo jaiak

Aste bukaeran Portasolgo jaiak ospatuko dituzte. Gaur hasiko dituzte jaiak: 22:30ean rock kontzertuak izango dituzte. Aste bukaeran, Portasolen.

ARRASATE Zerrajerako jaiak

Zerrajerako jaiak ospatuko dituzte gaur: 16:30ean umeendako margoak; 17:00etan jolasak; 20:00etan Goikobaluk kontzertua eskainiko du Erreka jatetxearen kanpoaldean; 21:00etan afaria; eta 22:00etan dantzaldia. Gaur, egubakoitza, Zerrajeran 16:30etan.

ANTZUOLA Bazkaria eta karaokea

Jaien barruan, txosnagunean bazkaria eta karaokea. Gaur, egubakoitza, Txosnagunean 14:00etan.

Goiena Klubeko
uztaileko zozketak

Adi! Astelehenean, uztaileko sarien irabazleak zeintzuk izan zareten esango dugu. Zorte on!



Baserri Sareak emandako otarra



Eroskik emandako e-book



Arrikruzerako sarrerak



Pamielak emandako dvd-liburua



Pamielak emandako liburu sorta

GOIENA KLUBEKO ABANTAILA GEHIAGO:

Deskontuak komertzioetan: Debagoieneko hainbat komertzioetan deskontuak.
Goiena papera: Astelehenean ere etxean jasoko duzu asteburuko informazio guztiarekin.
Deskontuak: Goienan jartzen duzun iragarki sailkatu eta eskola guztietan.



Urteko kuota: 50 € | 943 25 05 05
kluba@goiena.com | goienakluba.com



goienakluba
Euskara irabazle, denok irabazle!

ESKORIATZA Kepa Junkera

Errekan Gora jaialdiaren bueltan, Kepa Junkera musikari ezagunak kontzertua eskainiko du. Jose Luis Canalekin (pianoa) eta Iñigo Olazabalekin (perkusioa, alboka, txalaparta) batera, energia handiko formatu txikiko emanaldia eskainiko du bilbotarrak. Gaur, egubakoitza, Santa Mariñe plazan 22:30etan.



goiena

2013-07-19

BUKATZEKO

Arrasatearrak, tontorrek aktibatzen

- ▶ Arrasateko hiru irratizalek emaitza onak lortu dituzte Summit On The Air nazioarteko txapelketan
- ▶ Tontorretatik emititu eta lau lagunekin hitz egitea lortu behar zuten, puntuak eskuratzeko

LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE

Arrasateko hiru irratizale eta Durangoko bi Pirinioetan ibili ziren uztaileko lehenengo aste bukaeran, Summit On The Air (SOTA) izeneko nazioarteko txapelketan parte hartzen. Txapelketa horrek aurrera jarraitzen du, eta orain bi aste bukaerakoa bertako proba puntuagarrietako bat izan zen. Beste irratizale batzuekin topatzeko aitzakia ederra izan zela esan digute, eta "oso ondo" joan zela proba bera: 24 puntu lortu zituzten. Hain zuzen, Belaguan, Nafarroko iparraldean jokatu dute proba hori.

Mendiak aktibatzea da lehiaketaren helburua; bestela esanda, Gotzon Altube taldekide arrasatearrak azaltzen digun moduan, "tontor batera igo norberaren emisora eta antenarekin, emititzea eta gutxienez lau lagunekin hitz egitea lortzea". Arrasatearrek eta durangarrek osatutako taldeak Ingalaterrarekin, Frantziarekin, Italiarekin, Portugalekin eta Euskal Herriko jendearekin berba egitea lortu zuen.

Tontor bakoitza aktibatzeak puntu kopuru bat ematen dio hori egiten duen taldeari; gehiago edo gutxiago, tontorraren arabera. Altubek dioenez, taldeak "helburua



Taldeko lau kide, Larrondoa mendian. | GOTZON ALTUBE



Alberto eta Gotzon arrasatearrak, emititzen. | GOTZON ALTUBE

betetzea" lortu zuen: hiru tontor aktibatzea. "Puntuak geuk irabazi eta beste batzuei eman egiten dizkiegu, gurekin kontaktatzen dutenek ere puntuak lortzen dituztelako, beste sailkapen baterako".

Gotzon Altuberen esanetan, "txapelketak elkarrekin egoteko modua dira" irratizaleendako, eta hamarretakoan ere primeran pasatzen dutela esan digu.

Hurrengo proba puntuagarria irailan izango da. Huescara joango dira. "Hiru mila metroko tontorrek aktibatu beharko direnez, proba gogorragoa izango da", esan digu Gotzon Altubek.

"Kalitate handia dago"

Poltsikoko telefonoek eta Internetek terreno handia jan dieten arren, oraindik badaude irratizaleak gure inguruan, Gotzon Altubek dioen moduan: "Debagoienean hamar bat egongo gara. Arrasatekook elkarrekin dugu eta aldiro-aldiro batu egiten gara".

Altuberen esanetan, irratizaleen munduan espezialitateak ere badaude: "Gure kasuan, mendira igotzea eta handik hitz egitea; beste batzuek irradi bidez sateliteak kontaktatzea. Irratizale kantitate handirik ez dago, baina kalitatea, bai".

AZKEN BERBA

IDOIA ETXEBERRIA



Momentu txikiak

U ne berezi horiek. Bizitzako momentu txikiak dira zoriona harilkatzen dutenak.

Zaila da hari horrekin soinekoa egitea, baina ez ezinezkoa. Behin eta berriro josi behar da. Han eta hemen egin behar zaizkio adabakiak. Haize leunenak ere urratu egin baitezake. Haria ikusten duenak soilik ikas dezake josten. Horregatik, asko gara sarriegi larrugorritan sentitzen garenak.

Ihes egiten digute. Egia esan, eguneroko zurrunbiloan ez dago joskintzarako asti larregi. Hariak katramilatuta egiten dira. Soinekoa egin nahi, eta ez gara tangara ere iristen. Batzuek estresa deitzen diote. Momentu txiki horiek galtzen ari garela sentitzen dugu. Disfrutatze gaitasuna kamustu egin zaigula. Eta zorionsu izatea da guk nahi duguna, ala? Behin biziko eta...

Batzuetan ur tanta batean itotzen gara. Beste batzuetan, ordea, ur tanta batean igeri egiten dugu. Hori egiten ere badakigu, bai. Eta opor sasoi oso aproposa da horretarako. Momentuan momentukoa bizitzeko. Urrutira joan beharrik gabe. Ahalegin handirik egin gabe. Ia ustekabe. Begirada aldatu egiten zaigu. Eta hari muturrak ikusten hasten gara. Edonon.

J. Carlos Guerra, 1 • Tel.: 943 79 29 95
ARRASATE

Ibargarai, 16 • Tel.: 943 76 15 75
BERGARA

BEASAIN • DONOSTIA • EIBAR • ERRENTERIA • IRUN • ORDIZIA • TOLOSA

MULTIÓPTICAS
lehena zerbitzu optikoetan